



**Mank-en Bitartekaritza Zerbitzua, elkarbizitza sustatzeko tresna** / 5

**Irañetan inauteriak eta Santa Ageda asteburuan. Olaztin eta Altsasun kinto ospakizunak** / 6



**Irurtzango Osasuna Magna 2017ko Nafarroako kirol talde onena izendatu du gobernuak** / 18


**Arakilgo udaletxeko igogailua hilaren akaberarako erabilgarri egotea nahi dute** / 7

**Prensa idatziaren Argia saria jaso du Iñaki Berastegiren "Harmaila" aldizkariak** / 9

**Abiadura Handiko Tren egitasmoari alegazio bat eta hitzaldi sorta prestatu dizkiote** / 12



**Sakana Zirt taldeak abiaraziko du Bardoak 2018, Nafarroako taldekako bertso ekimena** / 23



## Uraren hiri-zikloa

Etorkizuneko ur hornidura eta saneamendua zehazteko lanean / 2-3

*Markako betaurrekoak lente graduatuekin*

**69 € tan**

+4-4 Esf-era arte/ -2.00/+2.00 zilindro

**Sakanaoptika**



Irañetako Urruntzere iturburu. ARTXIBOA

## Geroko ur hornidura eta saneamendua zehazten

Nafarroako Gobernuak ur hornidura eta saneamendua hiri-erabilerako uraren ziklo integral bakarrean bilduko du. Parte hartze prozesuan gobernu ordezkariak Sakanarako lau alternatibekin etorri ziren eta bosgarren batekin joan ziren

### SAKANA

Hiri-erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailea 2019-2030 egiteko parte hartze prozesua martxan du Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak. Sakanari dagozkion lehen bilerak (hautetsiak eta herritarrak) astelehenean egin ziren. Planaz eta bilerek emandakoaz jakiteko Nilsa enpresa publikoko gerente Iñaki Urri-zalkirekin hizketatu gara.

### Zertaz ari gara hiri-erabilerako uraren ziklo integralaz hitz egiten dugunean?

Uraren hornidura: etxeetan, industrian edota dendetan erabiltzen dugun ura. Erabili

ondoren ura zikintzen dugu. Ur zikin horiek guztiak jaso, bildu, tratatu eta berriro ibaietara bueltatzen dira, lehen baino garbiago, noski. Horri saneamendua deitzen diogu. Hornidurak eta saneamenduak osatzen dute ziklo integral hori.

### Plan zuzentzailea. Zergatik?

Gaur egun 1988ko eta 1989ko hornidura eta saneamendu planak indarrean daude. Nolabait berriro dira. Orain, alde batetik, biak sakonago landu nahi dira. Parte-hartzearekin, noski. Eta bi plan izan beharrean bakarra izatea erabaki da.

### Zertarako balio du?

Zerbitzua hobetzeko, noski. Baina azken 30 urteetan gauza asko

gertatu dira. Aipagarriena 2000 urtean Europak onartutako zuzentaraua izan zen. Horretara egokitzeko plan berria beharrezkoa da.

### Zein da Sakanaren egoera?

Denetarik dugu. Gaur egun Sakanan 4 hektometro kubo inguru erabiltzen dira hornidurarako. Horrek esan nahi du 4.000.000.000 litro ur urtean erabiltzen direla. Asko edo gutxi da? Kopuru dezentea da. Urdalurko uharka eta beste iturburuak erabiltzen dira ur hori lortzeko. Baliabide aldetik ez dago arazo handirik. Dagoenarekin kontsumoa bermatzen da gaur egun. Etorkezinean klima aldaketarekin zer gertatuko den ikusi behar-

ko da. Beste lekuetan okerrago daude. Saneamendu aldetik araztegi guztiak eginda daude (Ziordikoa martxan jartzea falta da). Hori ez da gutxi. Eguneroko lan hori egiten da. Horrek bermatu du gaur egun Arakil ibaiaren ur kalitatea lehengoa baino hobea izatea. Ez gara egoera guztiz onera iritsi baina hurrengo urteetan iritsiko garela uste dut. Hori bermatzeko, planak araztegietan zenbait ekintza eta hobekuntza aurreikusten ditu.

### Sakanan urak zein erabilera du?

Zera azpimarratuko nuke: Sakanan erabiltzen den uraren % 65 ez da kontrolatzen. Horrek zer esan nahi du? Guk iturburuetatik 100 litro hartzen baditugu 35 kontrolatu edo fakturatzeko ditugu eta gainontzeko 65ak ez ditugu fakturatzeko eta ez dakigu nora doazen. Guk pentsatzen dugu ur galera asko izan direla hoditeria zaharrak delako, zulatuta dagoelako. Horrela ura galtzen da. Gerta liteke kontsumo kontrolatu gabea edo legez kanpokoa izatea. Askotan ur kontagailuak zaharra dira eta ez dute funtzionatzen edo ez dute behar bezala neurtzen. Arazo konplexua da. Egia da ur asko galtzen dela. Nafarroan ur galeraren batz bestekoa % 34koa da gutxi gorabehera. Hemen ia-ia bikoitza dugu. Kontrolatu gabeko kontsumoa alde batera utzita, etxeko kontsumoa nahikoa nagusi da, % 20. Industriak ia-ia % 10 kontsumitzen du. Beste jardueretan ere ura kontsumitzen da: lorategi publikoen ureztatzea, kale garbiketa, kiroldegia, igerilekuak eta abar.

**% 65 hori konpontzeko mahai gainean proposamenak jarriko zenuz, ezta?**

Tamalez hori ez da Sakanan bakarrik gertatzen. Egia da beste lekuetan kopurua askoz ere

**SAKANAN KONTROLATUTAKO 100 LITROETATIK 65 EZ DIRA FAKTURATZEN, NAFARROAN 34**

hobea dela, % 20 baino gutxiagokoa. Sakanako datu hori txarra da, ezin da ukatu. Planak zenbait ekintza eta ildo planteatzen ditu, bai. Azpiegiturak egin beharko dira. Seguraski sareak zenbait lekutan gaizki daude. Edo zaharrak dira eta, dudarik gabe, berriro beharko dira. Gero ere, eguneroko kudeaketa egin beharko da, kontrolatu beharko da ura nondik eta zergatik galtzen den; legez kanpoko kontsumorik ba ote den begiratu beharko da. Dudarik gabe, hori eguneroko lana izanen da hemendik aurrera. Erakunde guztiak horrekin nahiko kezkatuta daude. Nik emandako datuak 2015ekoak dira. Azken bi urteetan ikusi da erakunde guztiak lanean daudela eta kopuru hori pixkanaka-pixkanaka behera, hobera doa. **Astelehenean plana hautetsiei eta herritarrei aurkezteko saioak egin zenituzten Lakuntzan. Zer moduz? Jendea joan zen?**

Oso ongi. 25 pertsona bildu ginen. Parte hartze prozesu nahiko polita izan zen. Gauzak eztabaidatu ziren. Hori beti ona da. Proposamenak sortu ziren. Gehienak pozik atera ginen. Ni behintzat bai.

### Sakanarako zer proposatu zenuz?

Guk lau alternatiba ikusi ditugu, gehien bat ur hornidura hobetzeko. Hortaz aritu ginen. Azken finean, bosgarren alternatiba bat sortu zen, ez aho batez, baina nahiko babesaz. Proposatu zuten iturburu guztiak mantentzea (Urdalur, Iribas, iturburuak). Gehienek onartu zuten kontrolatu gabeko ur kopuru hori hurrengo urteetan ikaragarri murriztu behar dela. Horretan ez zen eztabaida handirik egon.

### Ekarpenekin zer egingen duzue?

Nilsan gobernu laguntzen ari gara. Azken hitza beti gobernuak izanen du. Gu egunero eskualdeetara joaten gara eta proposamenak jasotzen ditugu. Eskualde bakoitzarendako alternatiba egokiena zein den begiratu beharko dugu. Hori hurrengo asteetan landuko dugu eta, ondoren, bigarren bilera bat



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor  
SISTEMA BERRIA  
KOLEOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

## Hiri-erabilerarako uraren ziklo integralaren plan zuzentzailean Nilsak proposatutako alternatibak

	0 alternatiba	1 alternatiba	2 alternatiba	3 alternatiba
<b>Azalpena</b>	Egungo baliabideak mantentzea.	Urdalur eta Iribasko baliabideak erabiltzea.	Urdalur erabiltzea eta iturburuak uztea.	Urdalurtik herriak hornitzea, Iribaskoak handik hornitzen segitzea.
<b>Egin beharrekoak</b>	Iturburuak hobetzea.	Iribasko hoditeria zatia osatzea.	Urdalurko hoditeria Irurtzuneraino eramane.	Urdalurko hoditeria Irurtzuneraino eramane.
	Iribasko hoditeria zatia osatzea.	Irañetako, Uharte Arakilgo, Arruazuko eta Etxarri Aranazko ur-konexio adarrak.	Irañetako, Uharte Arakilgo, Arruazuko eta Etxarri Aranazko ur-konexio adarrak.	Irañetako, Uharte Arakilgo, Arruazuko eta Etxarri Aranazko ur-konexio adarrak.
	Irañeta (Urruntzura), Uharte Arakil (Ganbeta), Arruazu, Etxarri Aranatz (Amaiturrieta) eta Olatzagutiko iturburuetak kanalazioak hobetu.		Iribasko hoditeria zatia osatzea.	Gaizki dauden iturburuetak hoditeria berri eta turbidimetroak jartzea.
	Sakanako Mankomunitatearen iturburuetan turbidimetroak jartzea.			Iribastik Imotzerako hoditeria osatzea.
<b>Baliabideak</b>	Urdalur (1,07 hm <sup>3</sup> ).	Urdalur (1,07 hm <sup>3</sup> ).	Urdalur (2,22 hm <sup>3</sup> ).	Urdalur (1,31 hm <sup>3</sup> ).
	Iribas (0,24 hm <sup>3</sup> ).	Iribas (0,24 hm <sup>3</sup> ).		Urruntzura (0,06 hm <sup>3</sup> ).
	Urruntzura (0,06 hm <sup>3</sup> ).			Gainontzeko iturburuak (0,85 hm <sup>3</sup> ).
	Gainontzeko iturburuak (0,85 hm <sup>3</sup> ).			
<b>Abantailak</b>	Inbertsio eskasa.	Inbertsio eskasa.	Inbertsio eskasa.	Uraren kalitatearen berme handiagoa.
	Mank-eko Ur Zerbitzuko herriak ez dira baliabide bakar baten menpeko.	Uraren kalitatearen berme handiagoa.	Uraren kalitatearen berme handiagoa.	Ur hornidura berme handiagoa
			Ur hornidura berme handiagoa.	Zenbait baliabideekiko mendekotasuna.
			Iturburuak ez lirakeke gehiegi ustiatuko.	Iturburuak ez lirakeke gehiegi ustiatuko.
<b>Desabantailak</b>	Iturburuaren menpeko herriek udan emari berme txikiagoa izanen dute.	Iribastik hornitzen diren herriak udan hornidura berme txikiagoa izanen dute.	Baliabide bakarrarekiko mendekotasuna.	Baliabideak kutsatzeko aukera handiagoa eta jatorri desberdinetako uren nahasketak kontrola eskatuko du.
	Urdalurko eta Iribasko uren kalitatean arazoak (uhertasuna).	Baliabide bakarrarekiko mendekotasuna: Urdalur edo Iribas.		
	Baliabideak kutsatzeko aukera handiagoa.	Urdalurren ustiapen eskasa eta Iribasko iturburuaren gehiegizko ustiapena.		
	Urdalurren ustiapen eskasa eta iturburuaren gehiegizko ustiapena.			
<b>Gainkostua</b>	0,011 euro/m <sup>3</sup>	0,003 euro/m <sup>3</sup>	0,012 euro/m <sup>3</sup>	0,024 euro / m <sup>3</sup>

eginen dugu martxoaren 6an, asteartean. Hor aurkeztuko dugu gobernuak erabaki duena, edo behin-behinean aukeratutako alternatiba. Dokumentua berriro berritu egin beharko da. Behin betiko onartu beharko da. Noiz? Informazio publikorako beste prozesu bat izanen da. Behar bada maiatza garila bitartean, bi hilabete baino gehiago egon beharko duelako jendaurrean. Gero behin betiko plana onartuko da. Aurten onartuko litzateke eta ideia da puntu garrantzitsuena Foru Lege bitartez onartzea. Hori legegintzaldi honetan eginen litzateke.

**Lege horretan jasotakoa betetzeko inbertsioak beharko dira eta horiek ere etorriko dira, ezta?**

Bai. Ez bakarrik inbertsioak. Inbertsioak garrantzitsuak dira. Baina eguneroko lana garrantzitsua da baita ere. Inbertsioez

aparte ekintza asko planteatzen dira: kontrolatzeko, kontsumoak jaisteko eta abar.

### Sakanako ur kontsumoak

**Etxekoa**  
• % 35,97

**Industria**  
• % 18,05

**Besteak**  
• % 0,19

**Kontrolatu gabeko ura**  
• % 51,09

**Guztira**  
• 4,266 hm<sup>3</sup>

### Kontrolatu gabe % 67,21

**Irurtzun**  
• % 75,68, 345.000 m<sup>3</sup>.

**Arakil**  
• % 75,33 193.000 m<sup>3</sup>.

**Arbizu**  
• % 72,01, 168.000 m<sup>3</sup>.

**Altsasu**  
• % 70,34, 968.000 m<sup>3</sup>.

**Lakuntza**  
• % 68,44, 200.000 m<sup>3</sup>.

**Olatzagutia**  
• % 66,54, 206.000 m<sup>3</sup>.

*Iturria: Nilsa.*

### Ur hornidura tarifak

**Uraren goi-hornidura**  
Sakana guztian 0,15ekoa da prezioa.

**Etxekoa**  
Arakilgo 0,53tik  
Ergoienako 0,83 bitartean dago.

**Industriakoa**  
Lakuntzako 0,85etik  
Arakilgo 1,92 artera arte.

**Abeltzaintza**  
Ergoienak zehaztua duen bakarra, 0,83.

*Iturria: Nilsa.*

### Uraren kudeaketa

**Uraren goi-hornidura. Iturburutik herrira**

- Sakanako Mank.
- Irañeta.
- Uharte Arakil.
- Arruazu.
- Etxarri Aranatz.

**Uraren behe-hornidura. Herrian banatzea**

- Sakanako Mank.
- Arakil.
- Irañeta.
- Uharte Arakil.
- Arruazu.
- Ergoiena.
- Etxarri Aranatz.
- Altsasu.
- Ziordia.



ASTEKOA

ANA ARRAIZA ARTIEDA

## Gora gure pirata!

Aurreko urtarrilaren 17an Perthes eguna izan zen. 2016ko maiatzean izan nuen gaixotasun honen berri lehen aldiz. Izterrezurraren burura ez da odola iristen eta ondorioz zelulak hil eta higadura sortzen dute. Haurrei diagnostikatzen zaien gaixotasuna, baina zelula berriak sortuz sendabidea duena. Piratek egoera gogor askori aurre egiten diote itsasoan eta orduz gero gaixotasunaren kontrako borroka horretan dihardu gure piratak eta baita bere familiak ere.

Hasieratik, bere egin beharren artean hanka lurrean ez jartzea zegoen eta horrek ondorioak ekarri zituen bere egunerokoan. Bizitza baldintzatu zitzaion gure piratatxoari baina oztopoak gainditzen ikasi zuen hasiera hasieratik. Ekintza batzuetan ezin zuen ordura arte bezala parte hartu,

### PIRATEK EGOERA GOGOR ASKORI AURRE EGITEN DIOTE ITSASOAN ETA BORROKA HORTAN DIHARDU GURE PIRATAK

baina pirata ausarten modura, egoerara egokitu eta nahi izan duen ekintza guztietan parte hartu izan du.

Azken egun hauetan, borroka honen beste eronka zail bati aurre egin behar izan dio eta baita primeran gainditu ere. Baina ezin ditut aipatu gabe utzi momentu oro alboan dituen familiako kideak; bereziki anaia, ama eta

aita. Gaixotasuna pertsona batek daruma baina familia guztiak pairatzen du. Hauen etengabeko babes eta maitasun guztia botikariki garrantzitsuenak izan ditu.

Ikasgai ederra eman diguzue, familia! Txapeldun batzuk zarete!

Abenturak bizitzen dituzte piratek eta gure pirata ere abentura bat bizitzen ari da. Irribarrea etengabe marratzua du aurpegi eder horretan eta bizipoza du bidelagunik onena, minak eta tristurak arintzen dizkion bizipoza.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Internetera lotuta bizi zara?

#### SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Gaur egun, 10 eta 11 urtetako haurren bi herenek internetera sarbidea duen mugikorra dute. Eta 15 urtetik gorakoak %90ak ere horrelako gailua du. Eskuen artean, komunikazio eta aisialdirako aparteko tresna dugu; baina baita ere arrisku psiko-sozial ugari eragin ditzakeen tresna da hau: menpekotasuna, arretea eza, entzumen arazoak, ikusmen arazoak, errealtatearen pertzepzio desegokia... besteak beste.

Sevillako Pablo de Olavide unibertsitateko ikerlari batzuk, sarearekiko menpekotasunaren inguruan ari dira ikertzen. Frustrazioak, zoriontasun eza, gaixotasunak, bikotearekiko atsekabeak, lanarekiko atsekabeak, langabezia, eta bestelako ezbeharrak direla eta eman ohi dira interneten gehiegizko erabilera asko. Momentu txar horietan, sarea sentsazio berriak bilatzeko irtenbide erraza bilakatzen baita.

Gazteen %50a baino gehiagok egunean 5 ordu baino gehiago ematen ditu sareetan, beraz kontrolik gabeko tresna bihurtu dela ohartarazi du ikerketa honen zuzendariak.

Interneten gehiegizko erabilerari lotutako patologiek, hasiera batean ez dakarte hondatze fisikorik eta seinaleak ikusezinak dira. Horregatik zailagoa izaten da antzematea. Baina

badago arazo hauei aurrea hartzeko oinarritzko test bat, eta hauek dira burutu behar ditugun nahitaezko galderak:

-Hasiera batean erabakitako denbora baino gehiago konektatua egoten zara sareetan?

-Konektaturik egoteko denbora kontrolatzeko arazoak dituzu?

-Zure asetzera murrizten da denbora berdina konektaturik egonez gero?

-Interneten konektaturik egoteko denbora luzatu beharrean aurkitzen zara asetasuna lortzeko?

Aurreko galderen baiezko erantzunak, arazo potentzial baten aurrean egotearen adierazgarri dira, gehienbat nerabezaroan. Hau baita garai kritikoenetakoa, nortasunaren eta garunaren garatze prozesuan.

Nortasunaren ezaugarri hauek agertzen dituztenak dira ahulenak internetekiko menpekotasuna edukitzeko: inpuitsibitatea, ohiko umore aldaketak, minari tolerantzia eza, loezina, neketasuna, atsekabeak, egonezina, emozio gogorren gehiegizko bilaketa, autestimu baxua, neurritz gabezia... gorpuz-irudiaren gutxiespena, depresioa, eguneroko zailtasunei aurre egiteko gabezia...

Menpekotasun hau dutenek, internet erabiltzen jarraitzen dute,

menpekotasun honek ikusmen galerak, bizkarrean mina, zorabioak, obesitatea, buruko minak, eta abar sortzen dutela jakin arren. Beraien atsedendialdiak 5 ordutik berakoak izaten dira eta beraien lagun, familia eta bikoteekin harremanak murriztu edo eteten dituzte. Baita ere lan edo eskola errendimendua murrizten da. Ikerketa buruaren esanetan "ikastetxeetan mugikorra baimenduz gero, atsedean garaian jolasteari utziko diote gazteek".

Adituek internetekiko menpekotasuna eta drogen menpekotasuna parekatzen dituzte, lehenengoan sustantzia batek izan gabe, jasotzen diren sentsazioengatik dela jakinda.

Egoera honek dakarren problematikari aurre egiteko hoberena, haurrak eta gazteak erabilera egokian hezte da, autokontrola indartuz edo ezjakintasun egoerak ekidituz. Honekin batera, baita guraso eta irakasleak teknologia berrietan trebatzea ezinbestekoa da. Beste aditu batek dioen arabera, gaur egun bizi garen garaian teknologia hauek nahitaezkoak dira eta beraiekin elkarbizitzen ikasi behar dugu; beraz, garrantzitsuena ez da teknologia berriei uko egitea, baizik eta hauen arriskuak mugatzea.

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzaileak:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gixane Andueza Goikoetxea  
admin@guaixe.eus

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus

#### Maketatzaileak:

Lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107  
618 882 675  
661 523 245



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

# Mank-en elkarbizitzaren aldeko apustua

Bitartekaritza Zerbitzurako urte bateko kontratazioa egin du, egiten den lana "onuragarria" delako. "Magreb aldekoak eta sakandarrak elkar ulertzea bermatzen du, horrek elkarbizitzan duen eragin baikorrarekin"

## SAKANA

Sakanako Mankomunitateak zerbitzu baten aldeko apustua egin du: Bitartekaritza. Anitzartean Zerbitzuko Batzordeak Mank-eko batzarrari egindako eskaerari erantzunez erabaki du Youssef Chahor bitartekaria urte guztirako kontratatzea. "Mank-en eta udalen aldetik ikusten da ematen ari den zerbitzua baliagarria dela".

Aurki Bitartekaritza Zerbitzuak bere e-posta helbide propioa eta harremanetarako bestelako bidetarako izanen ditu. Horren berri aurrerago emanen du Mank-ek. Bitartean Anitzartean Zerbitzura jo daiteke: 648 070 710 edo [immigrazioa@sakana-mank.eus](mailto:immigrazioa@sakana-mank.eus).

## Indartutako zerbitzua

Mank-en Anitzartean eta Bitartekaritza zerbitzuak elkarlanean aritzen dira. Chahorrek azaldu duenez, Afrika ipar-mendebaldean, Magrebeen, sortu diren sakandar berriek, "Sakanako zerbitzu publikoei buruzko informazio zuzen eta osoa eskuratzea bermatu nahi dugu, izan arabiar, frantses edo tamazigh hiztun". Sakanako Mankomunitateko bitartekariak gaineratu duenez, "batzuetan zerbait ulertzen dute, baina ez dute informazio guztia jasotzen".



Iribarren, Oroz, Zestau, Chahor eta Saez de Albeniz aurkezpenean.

Herrietako harrera programetan parte hartzen du ere Bitartekaritza Zerbitzuak, "familia etorri berriei inguru berrian laguntza eman eta kultur talka txikitzeko". Magrebetik, bereziki Marokotik, etorritako populazioari beharren arabera banakako arreta eskaintzen zaio ere. "Eskubide eta betebeharren inguruko informazioa, laguntza eta aholkularitza".

Zentro publikoak, batez ere ikastetxeak laguntzen ditu ere Bitartekaritza Zerbitzuak, "bi aldean, ikastetxearen eta ma-

grebtarren informazioa jaso eta emateko".

Anitzartean Zerbitzuko teknikari Bego Zestauk jakinarazi duenez, "urtetik urtera bitartekari eskaera gehiago jasotzen ditugu. Urteko batz besteko eskaera 75 batekoa da". Gehienak erantzuten dituzte. "Ezin direnak erantzun eskaeraren arabera, baliabide edo zerbitzu zehatzera bideratzen da pertsona".

Bitartekaritza Zerbitzua, nagusiki, magrebtarrei zuzenduta dago, baina "haren premia duen edozein pertsonak erabil dezake.

Izan ere, Chahorrek egiten duena ez da itzulpen soila. Kultur gakoak azaltzen ditu ere".

## Onurak

Magrebetik Sakanara etorri diren pertsonendako onurak zein diren ere zerrendatu ditu Zestauk: "haien parte hartzearen sustapena, euren ikuspuntutik edo izaeratik". Bai Anitzartean bai Bitartekaritza zerbitzuek "zubiak eraikitzen dituzte, ibarreko kultura desberdinen arteko hurbiltzea, errespetua, ezagutza eta batzea errazteko".

Gainera, bitartekariak, Anitzartean Zerbitzuaren bidez antolatzen diren ekimenetan parte hartzen du Chahorrek. "komunitateko pertsonen parte hartzea eta jarduera horretan elkartzen diren pertsonen arteko gerturatzea laguntzen du horrela".

## Ibilbide historikoa

Mank-en etorkinendako harrera planak egiten ziren 2006an. Sakanako mediku, irakasle, gizarte zerbitzuetako langile eta beste arlotako profesional batek baino gehiagok adierazi zion Mank-i Magreb aldetik etorritako pertsonekin elkar ulertzeko nolabaiteko zailtasunak zizutela. Bai kultura aldetik bai hizkuntzagatik. Anitzartean Zerbitzuak ibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen hiru mankomunitateekin elkarlan estua zuen, eta ondorioz, eskaera horri erantzuteko bi pertsona kontratatzeko aukera izan zen 2010ean. Bat hizkuntza bitartekaritza arduratu zen, bestea kultura arlokoaz. "Kezka adierazi zuten profesionalek ongi hartu zuten. Esperientzia oso baikorra izan zen eta agerian gelditu zen zerbitzu horren beha-

rra" gogoratu du Anitzartean zerbitzuko teknikariak.

2013 urtera arte INEMen dirulaguntza deialdi bat baliatuta urtero bitartekari bat kontratatu zuten. Baldintza batzuk zituen deialdiak eta 2013an pertsona bakarra aurkeztu zen. Bitartekari gisa lanean hasi eta beste lanpostu hobe bat opatu zuenez, utzi zuen. Zerbitzurik gabe ez gelditzeko, Anitzartean Zerbitzuak bitartekotza ikastaroa antolatu, 11 pertsona trebatu eta boluntarioen poltsa txiki bat sortu zen. 2013tik 2016ra bitartean pertsona horiek izan dira bitartekaritza arduratu direnak.

"Boluntarioa izateak bere mugak ditu. Boluntarioari ezin zaio profesional bati eskatzen zaiona eskatu. Eta modu horretan segitzea ezinezkoa zitzaien.

Anitzartean Zerbitzuko Batzordeak Mank-eko batzarrari pertsona bat kontratatzeko eskaera egin zion 2016an. Chahor bitartekaria hiru hilabeterako kontratatu zuten, zerbitzua probatzeko. Balorazio ona egin zen, "baina gauza dezente bukatu gabe gelditu ziren". 2017an sei hilabeteko kontratua egin zioten. Emaizta bera izan zenez, "zerbitzuak zituen etenak zentzurik ez zutela ikusi genuen. Horregatik, luzatu eta urte osoko kontratua egin da" azaldu du Orozek.

Gaur egun sakandar berriak populazioaren % 8 dira; haien artean magrebtarrak nagusi.

**EDOZEINEK ERABIL DEZAKE ZERBITZUA. ITZULPENAZ APARTE, KULTUR GAKOAK GERTURATZEN DITU**

## Ostiralero

# SAIOA

**9:30ean**

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

**Astelehenetik ostegunera**

## Metropoli forala

**9:00etatik 11:00etara**

Esataria: Maider

## Gaurko gaiak:

- Mank-en Bitartekaritza Zerbitzuaren aurkezpena
- Altsasukoak Aske literatur lehiaketako sari banaketa
- Harmaila aldizkariak jasotako Argia sariaz Iñaki Berastegirekin

107.3 FM

# beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE



## Santa Ageda 11 kinto ospatzen ari dira egun hauetan

Astelehenera arte, txaranga lagun, batean eta bestean eskean eta parrandan ariko dira gazteak

### OLATZAGUTIA

Aurten 10 neska-mutil olaztiarrek eta aguraindar batek osatzen dute kinto segizioa, 11 guztira: Unai Ruiz, Jokin Zufiaurre, Mikel Gil, Xabier Diaz de Durana, Aitor Lopez de Goikoetxea, Ander Gil, Kepa Gonzalez, Pablo Granada, Eki Imaz eta Ainara Galeano.

Herenegun iluntzean piztu zituzten aurreneko etxajua aurtengo kintoek. Poteoan ibili ziren afaldu aurretik. Atzo eta gaurko plana antzekoa da: Itxabela txaranga lagun dutela he-

rrian barna eskean ibiliko dira, dantza egingen dute eta euren festa giroa zabaldu eta giroa sortzen ahaleginduko dira. Bazkaltzeko eta afaltzeko etenak egingen dituzte jakina.

Gaur, ostiraleko moduan, tabernetan pintxo potea egonen da eta jendea errazago aterako da. Horrek bestelako giroa jarriko du herrian. Gainera, Maisuenea gaztetxean Tinko eta Katez taldeen kontzertuak iragarri dituzte. Haien saioak 23:30ean hasiko dira eta hainbat kinto han izanen dira.



Olatzagutiko kintoen hamaikakoa.

### Denak

Larunbatean kintada guztiak festara batuko dira. Eguerdiko poteoaren ondoren, bazkariak izanen dira. 19:00etatik 22:00etara Disko Nemuxk izanen da plazan eta gauerditik 03:00etara

orquestra batek kaleak girotuko ditu. Igandean eskean segituko dute. Santa Ageda egunarekin kintoek lau opil bedeinkatu eta apaizari, medikuari adinduena-ri eta gazteenari emanen diete. Eta iluntzera arte, festa!



Irañetako ihoteak. ARTXIBOA

## Inauteri eta Santa Ageda ospakizunak prest

Larunbatean inauteriak ospatuko dituzte eta igandean, berriz, koplak kantatuko dituzte

### IRAÑETA

Asteburu betea dute irintarrek. Betidanik Santa Agedarekin batera ospatu izan dituzte inauteriak. Eta Santa Ageda Bezpera igandean denez, animazio berezia izanen da bihar eta etzi Irañetan.

Larunbateko ihote ospakizunak majo gosaltzen hasiko dute. Menuan, tripotxak. Txapel Azpin hamaiketako egin eta gero segizioa kalejiran abiatuko da. Hura osatzen dutenek guztiz txuriz jantziko dira. Bizkarraldean koloretako zintak izanen dituzte eta gerriko gorria. Koloretako zintak dituen txanoarekin estaliko dute burua. Kalejirak eta segizioak ezkongai diren emakumezkoen etxeetan gelditu eta ezpel adartxoak egingo dako paxoak utziko dituzte.

Kalejira elkartean despedituko da eta han mozzorro bazkaria egingen dute. Iluntzen hastearrekin batera, 18:00ak aldera, guztiek mozzorro kalejira egingen dute eta eurekin Atxun Zarkoa izanen da. Gaixoak ez du jakinen sutan bukatuko duela. Ihote ospakizuna afari ederrarekin despedituko dute.

Santa Ageda bezperan, igandean, 17:30ean, txokolate jana egingen dute elkartean eta ondoren koplak kantatuko dituzte.

# Ospakizunen aurreko kinto urduritasuna

Bost eguneko ospakizunak astelehenean hasiko dituzte 79 kintoek. Asteazkenean atsedean hartu eta gero, ostegunetik larunbatera arteko festa izanen dute. Guzti-guztiek Zortzikoa dantzatuko dute, horregatik, 18:30ean hasiko dira dantzan

### ALTSASU

Dena prest dago. Badituzte euren buruak: Sarabe Goikoetxea Mazkian, Kima Gallego Gartzian-dia, Tasio Merchan Fernandez eta Eneko Vera Sainz. Jantziak eginak. Neskendako baserritar jantzi koloretsuak eta mutilendako praka eta ator txuriak, bularraldean gurutzatzen diren koloretako zapiak eta zintadun gorosti makila. Denek ere kaikua jantzia izanen dute. Eginak dituzte, baita, albumerako argazkiak ere. 20 egunez dantzak ikasten egon dira. Eta domekan, kintoetako batzuk Santa Agedaren omenezko mezatik atera ondoren, aurreneko kalejira egingen dute.

Astelehenean 79 kintoak herrian barna banatu eta argitu aurretik, 07:00etan, eskean hasiko dira, zilarrezko erretilua luzatuz. Altsasuarren eskuabaltasunaren esku dago haien bost eguneko ospakizuna. Kintoen laguntzaile gazteak, zahato-era-



Kintoak dantza entseguan.

maileak Olatz Galartza Lezea eta Ander Goikoetxea Aldasoro.

Beste diru iturri bat kintoek salduko dituzten opilak dira. Halako bat saltzen duten bakoitzean, esker onez, jota eta porrusalda dantzatuko dituzte.

Lortutako dirua bost egunetako bazkari-afariak ordaintzeko izanen da. Urtero moduan ospakizun gau bakoitzean taberna batek ordu txikiak arte zabalik egoteko baimena izanen du. Aurten: Arkangoa, Lezea, Xume, Koxka eta larunbatean guztiek ordutegi librea izango dute.

### Dantza

Astelehenean berandu bukatuko dute diru bilketa eta berandu joanen dira bazkaltzera. Baina plazara 18:30ak aldera agertu beharko dute. Izan ere, dantzari ugari izanik, egunero gutxienez 15 kintok dantzatu beharko dute zortzikoa.

Bestalde, zilarrezko, urrezko eta platinozko kintoak ere elkartuko dira ospakizunera. Gai nontzeko urteetako kintoak heldu den larunbatean dute hitzordua. Poteatzera elkartuko dira eguerdian eta asko eta asko autobusa hartuta hara eta hona mugituko dira bazkaltzera.

## Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa Altsasun

Dagoeneko martxan da Euskal Herriko Mus Federazioak 10. txapelketa, Euskal Herrian ohikoenetakoa den mahai joko horretan aritzeko zazpi lurraldeetako muszale eta muslariak bildu eta antolatuta nahi dituen lehiaketa hain zuzen ere. Uzta-ritzen jokatu da finala 2018ko martxoaren 10ean.

Baina hara iritsiko diren bikoteak aukeratzeko, aurretik bi kanporaketa pasa beharko dira. Abendua eta otsaileko lehen asteburua bitartean herrietako kanporaketak jokatu dira. Esaterako, larunbatean, 16:00etatik aurrera, Altsasukoa Akelarre tabernan izanen da. Herrietako bikote onenak Nafarroako finalera pasako dira, otsailaren 24an jokatu dena. Han eskuratuko da Uztaritzeko finalerako txartela. Txapelketan saritan 50.000 euro baino gehiago banatuko da.

Sakanan dagoeneko Irurtzun, Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranazko kanporaketak jokatu dira. Arbizutik Fran Balda-Alain Berastegi eta Esteban Etxeberria-Karlos Alonso bikoteak sailkatu dira.

### www.ehmus.eus

Euskal Herriko mus lehiaketa-ri buruzko informaziorako eta haren jarraipena egiteko.

# Udala ur biltegi berrirako lanak aurreratzen hasia

Irañetako Udalak, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarekin, premia duen ur biltegia berrituko du heldu den urtean. Lan horiek egin ahal izateko egin beharreko txosten tekniko eta bestelakoak aurten egingen ditu udalak

## IRAÑETA

Ur biltegi zaharra eta txikia du Irañetak. Finantza-krisia tarteko, ur biltegia berritzea urtetik urtera atzeratu den lan bat izan da. Udalak bakarrik egiteko lan handiegia da eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza beharrezkoa Irañetako Udalak 2016ko abenduan jaso zuen oniritzia, lanak 2019rako aurreikusi dira. Lanek 225.000 euroko aurrekontua izanen dute eta foru administrazioak 180.000 euro emanen ditu.

Lanak behar bezala egiteko planoak, obra zuzendaritza, lanak ematea eta bestelakoak aurten egingen dituztela jakinarazi digu Juan Angel Beraza Gastesi alkateak. Hori da aurtengo aurrekontuan udalak jaso duen gastuetako bat. Aurrekontuak 209.418,89 euro gastua eta 242.257,08 euroko diru-sarrerak izanen ditu.

Lan gehiago egingen ditu aurten Irañetako Udalak. Foru ad-



Jendea Irañetako kaleetan. ARTXIBOA

ministrazioak emandako erabileraskeko 25.817,14 euroekin kanalizazio bat egingen dute. Alkateak azaldu digunez, euri urak eta ur beltzak banatuta dituzte, baina ez herri guztian. Izan ere, ur araztegiara euri ur

kopuru bat iristen da. Hori guztia eragozteko kanalizazio berri bat egingen dute.

Bestetik, argiteria publikoko gastua murrizteko LED argiak jarri asmo du udalak. Berazak azaldu digunez, beste udalen batek laguntzari uko egin zain daude lana egiteko.

## Bordari bultzada

Irañetako bargan dago Basabeko borda. Haren ondoan daude Nafarroako Gobernuak 2009an natur monumentu izendatutako bost haritzak. Irañetako Udalak betidanik nahi izan du borda erdigune duen aisialdi eskaintza ematea, batez ere ikastetxei eta halakoei zuzenduta. "Basoa bisitatu eta borda aterpe moduan erabiltzea" hori litzateke udalaren asmoetako bat, Berazak azaldu digunez. Inbertitzeko diru handirik ez dute, baina egin beharrekoaz Sakanako Garapen Agentziako teknikariek hitz egin nahi dute.



Igogailuak aparkalekuan, plazan, bulegoetan eta 2. solairuan geldituko da. UTZITAKOA

## Udaletxeko igogailua otsaila akaberarako erabilgarri

Lanak despedituta, igogailu beraren zain daude. Arkitektura-oztopoak kentzeko lau geldialdi izanen ditu

## ARAKIL

Arakilgo Udalak aurten 766.368,15 euroko aurrekontua izanen du, joan den urtean baino 29.500 gutxiago. Aurtengo diru kontutan ez dira 2017an Satrustegin egindako lan handien parekorik, baina hartan jasotako 86.000 euro inguruko diru-saila, igogailua jartzeari bideratutakoa orain ari da inbertitzen.

2018ko aurrekontuei dagokionez, Paz Gonzalez Sagues alkateak azaldu digu hasitako proiektuei segida emateko direla. Hala, Izurdiagako autopista azpiko zubitik Irurtzungo mugara arte espaloia bat egingen du udalak. Lanak esleitu egingen dituztela azaldu digu alkateak. Bestetik, joan den urtean enpresa batek lanak hasi eta bertan behera utzi ondoren, Aizkorbeke herribasoko lanak berrituz emateko asmoa du udalak. Horretarako 31.663,07 euro prest ditu.

## Kontzejuendako laguntza

Arakilgo Udalak aldi berean behin kontzejuetara bilerak egiten ditu, haien premiak jakin eta berak egin ditzakeen mantenu-lanak antolatzen. Horretaz aparte, udalak duela bi urtera arte kontzejuetara emandako 35.000 euroko diru-laguntza berreskuratu du. "Inbertsio handiak egin behar genituen eta udalak ez zuen dirurik. Horregatik, moztu ziren kontzejuendako diru-laguntzak. Orain, berrituz, finantza gaitasuna dugunez, laguntzak ematea erabaki dugu". Alkateak azaldu digunez, kontzeju bakoitzak ko-

puru finko ba jasoko du eta beste bat biztanle kopuruaren arabera izanen dena.

Urtero moduan kontratazioak egiteko asmoa dutela esan digu Gonzalezek, "baina ez dugu zehaztu, egingen diren lanaren arabera izanen da". Jakinarazi digunez, Goi mailako Lanbide Heziketako Nekazaritzako eta Basogintzako ikasle bat praktikatzen izanen dute lanen taldekoekin lanean, martxotik garrantzarora.

## Bide sarea

Arakili buelta ematen dion bide sarea aurten itxiko da. Asmo horrekin Arakilgo Udalak 28.000 euro aurreikusi ditu. Batetik, seinaleztapena, garbiketa eta bideak txukuntzeko egin beharreko lanetarako. Biaizpetik Ihabar arte joan daitezke, Aralar azpitik. Aurten Irañetaraino luzatu eta ibarraren hegoaldeetik herri guztiak pasaz abiapunturaino lotu nahi dute. Eta, bestetik, ibilbide sarearen sustapenerako. "Europako diru-laguntzak eskatu ditugu. Ez badira iristen, agian, soilik lehen lana egingen dugu eta bestea heldu den urterako utzi", esan digu alkateak.

Bestetik, Plazaola bide berdea egiteko lanak oso aurreratutakoak daude Arakilen. Gonzalezek azaldu digunez, "puska txikia falta da. Hasieran asko aurreratu zuten, baina bizpahiru hilabete geldirik dago. Aurki turismo partzuergoaren bilera dugu eta azalpenak emanen dizkigute".

## Ostaturako tresneria erosi eta gero, lan gutxi batzuk gehiago

Aralarko mugako itxitura egingen du aurten Arruazuko Udalak, Aralarko Elkartearekin batera

## ARRUAZU

Arruazuko Udalak aurtengo aurrekontua onartu du. 141.605,95 euroko diru-sarrerak aurreikusi ditu eta 105.902,39 euroko gastuak. Azken horietako 29.040 euro dagoeneko inbertitu ditu. Herriarena den ostaturako eskuz aldatu behar zen eta barruan zeuden mahaiak, aulkiak, hozkailuak, kafe-makina eta labea aurreko maizterrena zen. Kudeatzaile aldaketarekin ostaturak hainbat egon edo aste itxita ez egoteko eta udalak tresneriaren jabe izateko haiek erostea era-



Jaietako argazki bat. ARTXIBOA

baki zuen, aipatu diru kopurua horretara bideratuz. Gauzak horrela, egun batean garbiketa egin zen eta ilbeltzaren 2tik kudeatzaile berria du ostaturaren ardura.

Nafarroako Gobernuak nahi bezala erabiltzeko 23.052,01 euro emanen dizkio udalari Pello Betelu Ganboak azaldu digu oraindik ez dutela zehaztu zertan inbertituko duten.

Bitartean dermioko bi bidetan konponketak egingen dira. Alde batetik, trenbide ondoko bordatik Uharteko Arakilerako daraman bidea batetik eta, bestetik, Lakuntzako trenbide gaineko oinezkoendako pasatik herri sarrera bitartean ere. Horretaz aparte, alkateak azaldu digu, aurrezteko argiteria publikoan LED argiak jarri ondoren, gauez, intentsitatea jaisten dutela.



Ximona gaztetxearen berora bilduko dira asteburuan Iturmendiko gazteak. ARTXIBOA

## Ximona gaztetxearen 7.urteurreneko ospakizunak

Iturmendiko Gazte Asanbladak hitzaldia, auzolana, bazkaria, gaupasa eta beste antolatu ditu

### ITURMENDI

Iturmendiko Gazte Asanbladak hitzordu berezia du asteburuan. Ximona gaztetxeak 7 urte bete dituzenez, astebururako festa polita antolatu dute herriko gazteek.

Ekitaldiak gaur hasiko dira, ostiralean, arratsaldeko zortzietarako antolatu duten hitzaldia-ekin. Abiadura Handiko Trena izango da hizpide, udaletxean. Jakina denez, Iruña eta Gasteiz arteko lotura Sakanan barna egingen lukete. Horrela, Sakana guztia zeharkatuko luke Abiadura Handiko Trenak eta horrek gurean ekarriko duena aztertuko dute gaur Iturmendin. Hitzaldia Sakana Trenaren Alde eta Sustrai Fundazioak antolatu dute.

Bihar, larunbatean, goizeko 10:00etan jarri dute hitzordua gazte iturmendiarrek. Ximona gaztetxean bilduko dira auzola-

na egitera eta gaztetxeko txoko guztiak garbi-garbi uztera. Izan ere, ondoren, 14:30ean, bazkaltzera bilduko dira eta, giroa berotzeko, karaokea jarriko dute martxan. Kanta kuttunak kantatzera gogoz animatuko dira gazte iturmendiarrak.

Gaueko 21:00etan dute hurrengo hitzordua. Indarrak berreskuratzeko bokata da egingo dute eta ondoren giroa ordu txikiertara arte luzatuko da, gaupasa antolatu baitute gaztetxean.

### 2011n hasi zen dena

Ximona gaztetxea 2011 urteko ilbeltzaren 7an okupatu zuen Iturmendiko Gazte Asanbladak. Haren jabe zen fundazioak ilbeltzaren 18an eraikina tapiatu zuen eta gazteak berriro etxean sartu ziren, otsailaren 3an. Bi urte luzeko lanen ondoren, 2013ko maiatzaren 10ean mustu zuten. Ordutik, gazteen bilgunea da

ragardo dastaketa egingo baitute Argi-Bidean. Otsailaren 9rako *Pasaia*ko *Badia* dokumentalaren emanaldia prestatu dute eta otsailaren 13an, Torturaren Aurkako Eguna izanik, ekimena deitu dute 18:00etarako. Otsailaren 17an, aldiz, Abiadura Handiko Trena izanen dute hizpide, Sustrai hitzaldia eskainiko baitu, 18:00etan.

Otsaileko egitaraua despeditzeko, 40 Minuto Rockera irteera antolatu dute Argi-Bidea elkartetik.

## Argi-Bideako 50. urteurrenaren barruan, pintxo potea

Aurten Arbizuko Argi-Bidea gazte elkarteak 50. hamarkada bete du. Data borobila behar bezala ospatzeko, makina bat ekitaldi antolatu dituzte, *Argi-Bidea, bost hamarkada... mila-ka taupada!* lelopean. Otsaileko egitarau oparoa dute, gaur, otsailaren 2an, ostiralarekin, abiatuko dena. Gaurko pintxo pote berezia antolatu dute, ga-

# Andra Mariko jolasgela diseinatu dute ikasleek

Andra Mari ikastolak YESict programarekin ekintzailetasuna lantzen du. Praktikara eramanez, DBH1eko ikasleek "Gure ametsetako jolasgela" diseinatu behar izan dute, 300 euroko aurrekontuarekin. Proposamen ezberdin eta emankorrak egin dituzte

### SAKANA

Ekintzailetasuna lantzeko YESict programa (Young Entrepreneurial Skills by ICT) sortu zuten Euskal Herriko Ikastolen Elkar- teak, Antic Unibertsitatea (Zipre) eta Vaeksthusthus Sjaelland (Danimarka) erakundeekin elkarlanean. Europako Batzordearen Erasmus + programak finantzatu zuen proiektua, 10 eta 15 urte arteko gazteen artean ekintzailatza sustatzea helburu duena eta Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolan praktikara eraman dena.

### Zer da ekintzaile izatea?

Ekintzailetasuna enpresa edo negozio berri eta arrakastatsua irekitzearekin erlazionatu ohi dugu. Baina jarrera ekintzailea enpresa mundutik haratago doa, etxean eta lagunartean ere ekintzaileak izan gaitezkeelako, egunerokotasuneko arazoak konpontzeko.

Eta hain zuzen ere hori sustatu nahi dute Andra Mari ikastolan YESict programarekin. "Pertsona ekintzaileak, erronka edo arazo bati aurre egiteko zirrara sentitzen du. Azken helburuak edo lorpenak alde aurretik identifikatzeko gai da, eta horietara iristeko pauso estrategikoak planifikatzeko ahalmena du. Gainera, prozesu guzti horretan gauza berriak ikasi beharko dituela daki. Bidean aurkitzen dituen arazoak konpontzeko gai da, eta horretarako bere ezagutzak, sormena eta pertseberantzia mobilizatu beharko ditu. Taldean lan egiteko ahalmena izango du, ikuspegi eta irizpide desberdinak bateratuz, taldearen adostasuna lortzeko, eta pertsona bakoitzak bere onena emateko. Gure ikasleek etorkizuneko Sakana erakitzeke eta bertan bizitzeko aukera izatea nahi dugu, eta bide horretan ekintzailetasunak paper garrantzitsua jokatuko



Andra Marin YESict programaren bidez ekintzailetasuna sustatzen jarraituko dute.

## BOZKETA BIDEZ PROPOSAMEN BAT AUKERATUKO DUTE ETA PROIEKTUA EGI BIHURTU

du" adierazi digu Andra Mari ikastolako Iñaki Tolosa zuzendari pedagogikoak.

**Jolastokia diseinatzeke erronka** Andra Mari ikastolan YESict programa DBH1eko ikasleekin garatu dute ikasturte honetan. Aipatu ikasleek erronka polita izan dute, "Gure ametsetako jolasgela" diseinatzea. Izan ere, aurten DBHrako jolas gela berria ireki da. Proiektua garatzeko, 300 euroko aurrekontua izanik, talde bakoitzak bere proposamen konkretua garatu du.

Iñaki Tolosak adierazi digunez, proposamena gauzatzeko pausu ezberdinak landu behar izan dituzte ikasleek. Hasteko, motibazioa. "Ikasleek ekintzailetasuna kontzeptua bereganatu dute, pertsona ekintzaile baten bisitaren bidez eta beste jardueraren bidez burutuz" azaldu digu.

Bigarrenik, erronka identifikatu dute. "Gai konkretu bati lotutako arazoak identifikatu dituzte, arazo hau jasaten duten pertsonek interes, behar eta sentsazioak identifikatu". Hirugarrenik, taldeak sortu dituzte eta talde lanerako rolak banatu dituzte. Laugarrenik, esplorazio lana. "Erronkan sakondu dute, dakartzen arazoak eta ondorioak ongi ulertuz". Bosgarrenik, ideien sorkuntzan sormena martxan jarri dute, ideia berriak sortu dituzte. Seigarrenik, aukeratutako ideia praktikara eraman dute, prototipo bat eraikiz. "Lehendabizi prototipo digitala sortu dute, eta, horretan oinarrituta, maketa egin dute" azaldu digu Tolosak. Eta, azkenik, lorpenak komunikatu dituzte, aurkezpen saioen bidez. "DBHko beste ikasleek eta familiariek jolasgela proposamen ezberdinak ezagutzeko aukera izan dute" esan digu zuzendariak.

### Boza bidez aukeratu

Oso esperientzia aberasgarria izan da. Bozketa bidez, denon artean aurkeztutakoen artean proposamen bat aukeratuko dute eta proiektu hori egi bihurtu.



# Berastegiren "Harmaila" aldizkaria saritua

"Patxadaz irakurtzeko aldizkaria, kirola eta kirolaria erdigunean jartzen dituen". Horregatik jaso du prentsa idatzizko Argia saria "Harmaila" aldizkariak. Aitor Manterolak, Eñaut Barandiaranek eta Iñaki Berastegi editoreek jaso zuten saria

## URDIAIN

Argia aldizkariak 29. Argia sariak banatu zituen Ursurbilen ostiralean. Han izan zen Iñaki Berastegi kazetari urdiaindarra eta *Harmaila* aldizkaria dituen bi kideak. Haiendako egun polita" izan zela aitortu digu.

**Sortu berriak eta saria. Halakorik espero zenuten?**

Ez. Astelehenean hots egin ziguten eta ez genuen sinesten. Hasieran broma zela uste genuen, hasi berrikan eman digutelako saria. Eta hasi berrikan emanda, poz handiagoa!

**Ez dakienarendako, zer da Harmaila?**

Kirol aldizkari bat. Euskal Herriko kirolari buruzkoa. Euskarara hutsean. Urtean bost aldizkari ateratzen dira. Patxadaz irakurtzeko aldizkari bat da: testu, elkarrizketa eta erreportaje luzeak, sakonak ditu. Diseinu aldetik ere nahiko berri-tzailea da, landua. Argazkiek ere garrantzia dute.

**Zeren euskaraz halakorik ez zegoen.**

Ez. Erdaraz baditugu: futboleko *Panenka* eta txirrindularitzan *Volata*. Horietatik inspirazio puntu bat hartu dugu. Hori ekarri nahi izan dugu gurera, euskarara eta Euskal Herriko kirolarietara.

**Hasi, Interneten hasi eta paperera salto egin duzue, ezta?**

Agorrilean 0 zenbakia argitaratu genuen, Interneten. Proba modura gure lanaren pieza txiki bat atera genuen. Jendearen erantzunaren arabera erabakitzea zen asmoa. Badirudi jendea gustatu zitzaioela. Askok diote paperezko hedabideen aroa despeditzen ari dela. Guri paperaren argitaratzea interesgarria iruditu zitzaigun. Halako aldizkari batek, argazki horiek eta, indar gehiago hartzen du paperaren. Durangoko Azokarako gure aurreneko zenbakia aurkeztu genuen, Hori, dagoeneko, paperaren.



Aitor, Eñaut eta Iñaki urtean Harmailako 5 zenbaki argitaratuko dituzte. WWW.ARGIA.EUS

## WWW.HARMAILA.EUS WEB ORRIAREN BIDEZ EGIN DAITEKE HARPIDETZA, PAPER EDO PDFa JASOTZEKO

### Durangoko Azokan auto-ekoizleen standean egon zineten. Zer moduz?

Oso ondo. Egia esan, lehen aldiz egon naiz beste aldean, saltzaileen postuan, eta oso esperientzia polita izan da. Beste hainbat ekoizleekin elkartu ginen standean eta oso momentu onak pasa genituen. Jende asko hurbildu zitzaigun galdetzeraz, aldizkaria hartzeraz, harpidetzak egitera. Balantze oso positiboa bi aldeetatik: *Harmaila* aldizkaria eza-gutarazteko eta, esperientzia pertsonal gisa, Euskal Herriko euskararen kulturaren azoka handiaren egotea aparta delako.

### Argia saria aurrera egiteko bultzada izanen da, ezta?

Bai, oso handia. Gainera, urtea hasi berrikan. Bultzada handia ematen digu. Jada egun hauetan nabaritzen ari gara askoz ere jende gehiago hurbiltzen ari


zaigula. Urtea hasi berrikan, bigarren zenbakia prestatzen ari garela, oso bultzada handia da. Eskertu nahi diegu, nola ez, Argiako lantalde guztiari eta sari honetarako gurengan pentsatu duten guztiei.

### Beraz, bigarren zenbakia prestatzen? Erdia edo idatzita. Baina ondoren, zalantzak, zuzenketak, argazkiak, diseinua, hau bai, hori ez. Gai nagusia Euskal Herriko Itzulia izanen da. Apirilaren 2an hasiko da. Martxoaren erdialderako kalean izanen dugu gure bigarren zenbakia.

**Urterako zein asmo?**  
Aurreneko zenbakiaren tirada 300 alekoa izan zen. 100 bat harpidedun ditugu. Gure esperantza da urte akaberarako 300 harpidedun bueltan izatea. Badakigu oso lan nekeza dela papererako harpidedunak lortzea, Interneta leku asko hartzen ari delako. Itxaropen handia dugu. Aurten lau zenbaki izanen dira, baina, normalean, urteko bost.

### Harpidetzeko zer egin behar da?

www.harmaila.eus web gunean. Paperekoa 40 eurotan bost zenbaki. PDFak, berriz, 15 eurotan. Ale solteak 10 eurotan daude. Kioskoena lantzen ari gara.



Lakuntzako industrialdea. ARTXIBOA

## Banda zabala lau herrietako industrialdeetara iritsiko da

Nafarroako Gobernuaren ekimenez Altsasura, Arbizura, Etxarrira eta Lakuntzara lastaila erdialderako iritsiko da

## SAKANA

Nafarroako 45 herrietako industrialdeek Internet bidezko banda zabaleko konexioa izanen dute aurten. Izan ere, Nafarroako Gobernuak Ekonomia Garapeneko Departamentuak 1.179.043 euroko inbertsioa egingen du ekonomia aktibitatea dagoen guneetara Internet bidezko banda zabala konexioa eramateko. Tartean daude Lakuntzako, Arbizuko, Etxarri Aranazko eta Altsasuko industrialdeak. Aipatu lanak, Telefónica de España SA eta Adamo Telecom Iberia SA enpresek egingen dituzte; aurtengo lastailaren 15era arteko epea dute horretarako. Nafarroako Gobernuak halakorik egiten duen aurreneko aldia da; industrialdeetara banda zabala ahalik eta azkarren emateko hartu dute erabakia.

Enpresetara zuntz optikoa eramateko eskaria aspaldikoa

da. Zuntz optikoa da internet konexiorik azkarrena ahalbidetzen duena, banda zabalaren aurretik. Sakanako Enpresaren Elkarteak (SEE) ere sarritan egin dio izan dio eskaera hori gobernuari. SEEren ustez komunikazioen kalitatea eta azkartasuna funtsezkoa da enpresen lehiakortasunerako, eta gobernuari ibarreko industrialdeetara eta enpresetara zuntz optikoa eramateko eskaria egin zion 2015ean, Iruñerrian, Tuteran inguruan, Lizarraldean eta beste egin duten bezala, "konektibitate egokia duten enprekin alderatuta, hemengo enpresek desabantailak ditugulako". Horrela, administrazio publikoei eskatu zieten "Nafarroako enpresa sare guztiari zerbitzu berberak eskaintzea, baldintza berberetan lehiatu ahal izateko". Zuntz optikoa ez, baina banda zabala aurten iritsiko da.

**nerea cenoz**  
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatu  
(Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenz.com  
**nereacenz.com**

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan  
Estafeta 16, atzea · Lakuntza  
(Bostekoa masaje zentroan)

**Pisua kontrolatzeko dietak:**

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

**Patologia ezberdinetarako dietak**

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

# Tabu zena hizpide bihurtu du mapak

Etxarri Aranazko Sufrimenduaren Maparen aurkezpenean etxarriarrek zuzenketak eta ekarpenak egin zituzten. Bestalde, UPNk eskatu du udalari Gobernuak emandako laguntza kentzea; horretarako proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan

ETXARRI ARANATZ

Euskal Memoria fundazioko Iñaki Egañak *Etxarri Aranazko Sufrimenduaren Mapa* aurkeztu zuen kultur etxean asteartean. Oinarrizko agiria zela argi utzi zuten. Aldi berean, etxarriar guztiei dokumentua irakurtzeko gonbidapena egin zieten. Kopiak udaletxean eta edo [www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus) web orriari eskuratu daitezke.

Udalaren deialdiari 45 pertsonen erantzun zioten. Agiriaren nondik norakoak azaldu eta gero, elkarbizitzari buruzko elkarrizketa sortu zen bildutakoan artean. Aldi berean, aipatu zen garrantzitsua dela norberak bizitako askatasunez eta kezkarik gabe lasai kontatzeko aukera izatea eta espazioak sortzea, kanpoko interesetatik aparte. Garbi gelditu zen sufrimenduak ezin direla konparatu.

*Sufrimenduaren Maparen* argitalpenaren inguruan sortutako zalaparta kanpoan izan dela eta herrian halakorik ez dagoela adierazi zuten. Bestalde, asteartean kultur etxera joandako etxarriarrek zuzenketa batzuk eta ekarpenak egin zituzten. Azken horien artean proposatu zen beste arlo batzuk ere jasota gelditu beharko lirakeela dokumentuan.



Kultur etxeko aretoa txiki gelditu zen aurkezpenean.

## UPNren eskaera

Pasa den asteartean PPko Ana Beltranek Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Batzordean eskaera egin zion Ana Ollo kontseilariari: Etxarri Aranazko Udalak *Sufrimenduaren Mapa* egiteko jasotako 5,790 euroko diru-laguntza kentzea.

PPkoaren eskaera ahozkoa izan zen, eta UPNk eskaera bera eginez mozioa aurkeztu zuen astelehenean. Udalari diru-laguntza kentzearekin batera, "ETAren terrorismoa zuritzeko

asmo guztiak baztertzea" eskatzen dute erregionalistek. UPNkoendako "agerian gelditu da aipatu mapan ETAKo biktimak eta erakunde terroristako kideak parekatzen" direla. Euren ustez, "kontakizunaren bataila irabazteko estrategiaren barruan dago eta bi alderen arteko gatazka politikoa zegoenaren teoria sendotu nahi du; bi aldeek zilegitasun bera eta Giza Eskubideak urratu eta sufrimendua eragin zutela".

Nafarroako Parlamentuan joan den astean Ana Ollok Etxarriko maparen kontura egindako agerraldia Nafarroako Gobernuari egurra emateko erabili zuten UPNk eta PPk. Gauzak horrela, Nafarroan terrorismoaren biktimak biltzen dituen elkarte berri bat sortu zela jakinarazi zen. AVT erakundeko Alfonso Sanchez buruak alderdi batek biktimak erabiltzen zituela garrantzitsuak zirela esan zuen. PPK Etxarrin duen zinegotzi Juan Antonio Extremerak bere burua eskaini du Sanchezi gobernuaren laguntzaz Etxarrin egindako agiria emateko. "Biktima eta hiltzaileak parekatzen ditu. Jakin balu ez luke esanen gobernu biktimekin lan handia egiten ari dela".

## Herritarrek agindutakoa betetzearen garrantzia

Nafarroan aldaketa politikoa sendotzeko laukoaren konpromisoa zoriondu du EAJk

ALTSASU

Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) ekitaldia egin zuen Altsasun larunbatean. Napar Buru Batzarreko buru Unai Hualdek nabarmendu zuen euredako garrantzitsua dela "aldaketa politikoa eta soziala egiteko herritarrek agindutakoa betetzen segitzea". Gobernuari eusten dion laukoak programa-akordioa garatzeko akordioak egiten segitzearen alde azaldu zen. Hualdek laukoak orain arte gobernuari egonkortasuna emateko izandako ardura nabarmendu zuen.

Hualdek altsasuarra izateaz, "herri solidario batekoa izateaz harro" zegoela nabarmendu zuen, eta herriak errege eguneko elurtean "bere benetako aurpegia" erakutsi zuela garrantzitsuak zirela, "aurretik zenbait hedabidek artifizialki sortutako irudia deseginez". Apiril erdialdean hasiko den Altsasuko auziaren inguruan Nafarroako EAJko buruak sumarioaren bilakaeratik "kezka handia" azaldu zuen: "normalizazioaren bidean lan handia egin beharra dagoenaren adierazle nagusia da, baita justizian eta zigor erantzunean ere; proportzionaltasunik gabe ez dago justiziarik".

Ekitaldian ere Nafarroako Gobernuo lehenadakariorde Manu Aierdi izan zen. Bere departamentuak Sakanarekin duen konpromisoa gogorarazi zuen, adibidez ibarreko plan estrategikoa garatzeko emandako 250.000 euroak. Aierdik ibarrak ekonomikoki dituen aukerak eta indarguneak zerrendatu zituen: "garai berrietara egokitu beharra duen industria-ehuna, turismo arloaren potentzialitatea, merkataritzarena eta energia berriztagarriena, "enplegu asko sor ditzakeena". Ekintzailetasunerako ohitura eta elkarre-ehuna ere gehitu zituen.

## 284.463 kilo elikagai jaso ziren bilketa erraldoian

Sakanan 8.000 kilo elikagaitik gora bildu zituzten Nafarroako Elikagai Bankurako

SAKANA

Abenduaren 1ean eta 2an Nafarroako Elikagai Bankuak Elikagai Bilketa Erraldoia egin zuen. Gure herrietako saltokietan kaxa handiak jarri zituzten boluntarioek, beharra duten familiendako elikagaiak biltzeko. Nafarroako Elikagai Bankutik adierazi zuten, Fundazioaren esanetan "erraldoiak dira dauden beharrak eta, horregatik, elikagai bilketa hau inoiz baino erraldoiagoa izatea nahi dugu".

Bilketako datuak eman dituzte berriki. Guztira, 284.463 kilo elikagai jaso ziren, 735.000 euroko balioa dutenak. 2.790 boluntarioek hartu zuten parte bilketan, eta Nafarroako 65 herritan burutu zen bilketa, 34 elikagai banatzailearen bitartez, 245 saltokitan, guztira. Nafarroako 8.448 familia laguntzera bideratuko da jasotakoa, tartean sakandarrak.

Sakanako datuetan jasotzen denez, Altsasun 5.849 kilo elikagai jaso ziren, Irurtzunen 853 kilo, Arbizun 488 kilo, Uhartea Arakilen 380 kilo. 7.570 guztira. Ez dituzte Lakuntza, Etxarri Aranatz eta Olaztikoko datuak eman, baina bertan ere bilketa egin zen. Hortaz, 8.000 kilotik gora jaso direla esan dezakegu.

## 117 zenbakia, errezero-kanpaina baten itxura guztia

Ibarraren luze zabalean, han eta hemen jarritako pankartak. Herrietan barna jarritako kartelak. Guztiek 117 zenbakia dute. Aipatu zenbakiarekin batera kartelen ondoan gizonezkoen eta emakumezkoen izen pila bat irakur litezke, baina ez da ezer gehiago. Batean eta bestean ikusita 117 hori zer ote den galdezka dago jendea, baita gu ere.

Konfiantzazko aseguradora orokorra!

MAPFRE

Sea como sea tu casa 25% BUENVENTO

Ongi pasa Santa Agedan

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354  
jimazpr@mapfre.com  
San Juan 48 · ALTSASU



Altsasuko udaletxeko teilatua berritu eta igogailua jarriko dute.

## Udaletxeko igogailua, gero eta gertuago

Altsasuk arkitektura-oztoporik gabeko herriaren etxea izateko nahia aspaldikoa da, baina badirudi ideia aurten gauzatuko dela, hala erabaki baitu. Lan hori eta Toki Azpiegitura Planean jasotako guztiak diruzaintzako gerakinarekin ordainduko dira

### ALTSASU

Ilbeltzaren 24an egindako bilkuran Altsasuko Udalak udaletxeko arkitektura oztopoak kendu, igogailua jarri eta komunak berritzeko finantza-plana onartu zuen. 189.059,03 euroko (BEZ barne) aurrekontua dute lanek eta Nafarroako Gobernuaren Toki Inbertsio Planaren bidez 107.012,81 euro jasoko ditu udalak lan horiek egin ahal izateko. Udalak ordaindu beharreko 82.000 euroak diruzaintzako gerakinetik pagatuko du. Toki Inbertsio Planean jasoa dauden lan guztietan hala egitea erabaki zuen Altsasuko Udaleko Ogasun Batzordeak, mailegu gehiago ez eskatzeko.

Baina aipatutako lanak ez dira udaletxean egingen diren bakarrak. Teilatua konponduko dute, ur filtrazioak kentzeko eta energia eraginkortasuna lortzeko. Lan honek Toki Inbertsio Planean jasotako daude eta 52.440,76 euroko (BEZ barne) aurrekontua du. Haietatik 22.103,12 euro udalak pagatuko ditu eta gainontzeko 30.337,64 euroak gobernuak.

### Kaleak ere

Zenbait kaletako sareak, zoladura eta kanalizazioa berritzeko asmoa ere badu udalak. Lanak egin ahal izateko proiektuak idatzi behar dira eta gero lanak zuzendu. Horiek emateko deialdia egina du udalak. Interesatuak

euren eskaintzak otsailaren 9ko 14:00ak arte aurkeztu ditzakete udaletxean.

Alde batetik, Amaia eta Bakea kaleetako lanen proiektua dago. Haren lizitazio prezioa (BEZ kanpo) 63.684,38 eurokoa da. Bestetik, Isidoro Melero eta Ermita kaleetako lanak daude. Proiektu horren lizitazioa 50.540,18 eurokoa da (BEZ kanpo). Altsasuko Udalak eskaintza onuragarriari emanen dio lana. Bai erredakzio bat bai beste egiteko 30 eguneko epea izanen du hartzaileak.

### Argiteria publikoa

Altsasuko Udalak Nafarroako Gobernuaren Toki Inbertsio

Plana deialdira zortzi lan aurkeztu zituen. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "inbertsio errealistak dira, inbertsio handiak egiteko aukera izan ez den urteen ondoren, Altsasu hobetzeko helburua dutenak".

Horietako bi herriko argiteria publikoa berritzeko diru-laguntza eskaerak ziren. Herria bitan banatu zuten horretarako. Azkenik, gobernuak bakarrik laguntzea erabaki zuen. Beraz, honako tokitan berrituko da argiteria: Beikolar, Ibarrea, Amezitia, Intxostia, Altsasu institutua, Zubeztia, Beheko Benta, Ondarria eta Gurutzeko bidea.

Proiektua idazteko 4.692,98 euro bideratu ditu udalak. Haietatik 2.495,04 udalak pagatuko ditu eta gainontzeko 2.197,94 euroak gobernuak. Egitasmoa idazten ari dira dagoeneko eta proiektua aurki jasoko du.

### Hirigintza plan berria

Herenegun egindako bilkuran Altsasuko Udalak erabaki zuen Udal Plan Orokor berria egiteko prozesua hastea. Haren bidez herriko hirigintza arauak berrituko dira. Horretarako, aurtengo aurrekontuan 250.000 euro bideratuko dira. Halakoetan ohikoa da Nafarroako Gobernuak % 80ko diru-laguntza ematea. Gaur egun indarrean dagoen hirigintza plana 2001eko da. Bilkuran Lazaro Echeverria SARI Erkudengo Haitzko harrobia 2042ra arte ustiatzeko baimena luzatu zioten.

Gainera, Altsasuko Gurasoek idatzia eraman zuten. Haren bidez Altsasuko Gurasoek apirilaren 14rako Iruñean antolatutako manifestazioarekin bat egitea eskatzen zen eta udalak hala egin zuen.

## Kale Nagusiko obrak festen ondoren hasiko dira

Sareak eta zoladura berritzeko lanak aurten hasi eta heldu den urtean despedituko da

### ARBIZU

Euri urak eta etxetako ur beltzak sare bakarrean jasotzen dira Arbizun. Horrek bi arazo sortzen ditu. Batetik, usainak. Bestetik, ur araztegiara euri urak ere iristen dira eta bere lana ez du behar bezala egiten. Legez bi sare horiek banatuta egon behar dira. Eta horretara egokitzeke egingen dituzte lan horiek Karmele Marañon Chasco alkateak azaldu digunez.

Lan horiek egiteko proiektua idazteko eta zuzentzeko deialdia egin du Arbizuko Udalak. 58.565,34 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua du eta interesatuak proposamenak hilaren 12ra arte aurkezteko aukera dute. Eskaintza onuragarriari emanen dio udalak lana. Egitekoa martxo akaberarako despedituta izan beharko luke. Lanak, berriz, San Juan festen ondoren, udan hasiko dira. Eta heldu den urtean despedituko dira.

Arbizun aurten egingen den beste lan garrantzitsua eskola berria da. Akerrauntza inguruan jasoko dute. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak egingen du lan hori. Gaur egun erakinari buruzko proiektua idazten ari direla jakinarazi digu alkateak.



arbizuko  
kanpineko  
taberna



MENUA 12€ /ASTEBURUKO MENUA, BOKATAK, PLATER  
KONBINATUAK, PIZZAK, BERTAN JAN EDO ERAMATEKO.

Erreserbak: 635 093 140



Lakuntzako Pertzta elkartearen 50. urteurrena. ARTXIBOA

## Elkarteetan euskaraz goxo-goxo aritzeko Mank-en kanpaina

Gastronomia elkarteetan euskara sustatzeko kanpainaren barruan eranskailua eta egutegia jaso dute

### SAKANA

Sakanako herri guztietan dago gastronomia elkarteren bat. Eta herri handietan bat baino gehiago. Sakandarrek elkarteetan biltzeko joera dugu, lagunartean bildu, ospakizunak antolatu edo, besterik gabe, herritarren artean gustura aritzeko. Gure aisialdiaren espazio garrantzitsuak dira. Eta horrenbeste jende biltzen den eremuetan euskararen erabilera sustatzea da Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko helburuetako bat, elkarte gastronomikoetan ere euskara erabiltzera animatzera. Horretarako 2015 urtetik *Elkarteetan Euskaraz Goxo-Goxo* kanpaina antolatzen du Mank-eko Euskara Zerbitzuak. Izan ere, azken hamarkadetan euskararen ezagutzak gora egin du Sakanan, baina egungo erronka igoera hori erabilerara ekartzea da, gizarte erabilerara hizkuntza baten bizitasunaren seinale baita.

**Elkartei eskainitako baliabideak: doako itzulpenak, errotuluak euskaraz jartzeko laguntza eta begiraleen lan-poltsa**

Urte aldaketarekin batera, Sakanako gastronomia elkarteek aipatu kanpainako euskarri berriak jaso dituzte: 2018ko egutegia, Euskara Zerbitzuaren aholkuekin eta doako baliabideekin eta Elkarteetan euskaraz goxo-goxo eranskailu edo pegatina, elkarteetako bazkideak elkartzeko diren lekuan jartzeko: sarrera, sukaldea, jangela...

Euskara Zerbitzuak elkartearen eguneroko jardueratan euskara erabiltzera animatzen ditu elkarteetan. Oinarrizko neurri batzuk aholkatzen dizkie: kartel eta oharretan, jendaurreko ekitaldietan (hitzaldiak, ikastaroak...) eta barne dinamikan (batzarrak eta beste) euskara erabiltzea. Horretarako, Mank-ek ondoko baliabideak eskaintzen dizkie elkartei: Euskara Zerbitzuak doako itzulpen zerbitzua eta errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntza eta Kirol Zerbitzuak begirale eta aurkezleen lan-poltsa.

### Diru-laguntza euskalgintzari

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak ibarreko euskalgintza eta euskara sustatzeko jarduerak diruz lagunduko ditu. Beti ere euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko helburua duten egitasmoak zein euskararekiko jarrera hobetzeko dutenak.

Mank-ek 5.000 euroko poltsa du banatzeko. Interesatuak euren eskabideak martxoaren 30era arte aurkeztu ditzakete Mank-en egoitzan. Hara jo daiteke argibide gehiagoren bila.

# AHT ibilbide egitasmoa hitzaldietan xehe-xehe

Sakana Trenaren Alde talde sortu berriak ibarrean barnako informazioa zabaltzeari ekin dio, eta horretarako hitzaldi mordo bat antolatu ditu. Bestalde, Sustrai Erakuntza fundazioarekin batera alegazioa prestatu du eta sinatzera deitu ditu sakandarrak

### SAKANA

Gaur egun dugun tren azpiegitura defendatu eta hobetzeko asmoz sortu da Sakana Trenaren Alde plataforma. Haren ustez ibarreko herriak lotu behar dituen azpiegitura hori izan beharko litzateke. Aldi berean, Sustapen Ministerioak aurrera eramanez duen Abiadura Handiko Tren proiektua "inposiziotzat" du, "gure ingurumenaren eta erkidegoko ekonomia-aren kontra egiten duelako".

Ministerioak Iruñea eta Gasteiz Sakanan barna Abiadura Handiko Tren bidez lotzeko egitasmoa jendaurreko informazio aldian dago. Plataformak horren kontra egiteko alegazioa prestatu du. Haren asmoa da ahalik eta jende gehienak sinatzea. Udalek eta kontzejuek ere bat egitea nahi dute.

Alegazio idatzia Sustrai Erakuntza fundazioarekin batera idatzi da. [www.fundacionsustrai.org](http://www.fundacionsustrai.org) web orrian eskuratu daiteke idatzia. Baita edozein pertsona edo erakunde aurkeztu dezakeen informazioa ere.

Abiadura Handiko Trenak zuzenean kaltetuta ez direnak "herri-alegazioa" sinatu dezatela gonbidatu dute. Tren azkarrereko proiektuak ondasunak ukitzen dietenendako moldatutako beste mozi bat prestatu dute. Udalendako eta kontzejuekiko prestatutako alegazioa orokorra da, argudioak zabalago ematen dira. Baina toki erakunde bakoitzak bere herriko berezitasunak gehitzeko aukera dute. Sakana Trenaren Alde plataformak alegazio ereduak hainbat pertsona eta erakunde-ri bidali dizkio jada.

### Informazioa

Proiektua geldiarazteko Sakana Trenaren Aldeko plataformako kideek ezinbestekoa jo dute jendeak informazioa izatea. Horregatik ibarrean barna informazio



Sakana Trenaren Alde taldea Uharte Arakilen aurkeztu zen ibeltzaren 24an.

## SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMAKO KIDEAK ALEGAZIO EREDUAK DITUZTE SINATZEKO

hitzaldi sorta antolatu dute. Haietan alegazio orriak izanen dira herritarrek sina ditzaten. Plataformako kideen asmoa da alegazio kopuru handi bat Espainiako Gobernuak Iruñean duen ordezkaritzan otsailaren 27an aurkeztea. Web orritik alegazioa hartu, bete eta gero aurkezterik ez duenak [sustrai@akuntza@gmail.com](mailto:sustrai@akuntza@gmail.com) e-postara bidali dezake eta fundazioko kideak arduratuko dira alegazioak Gobernu Ordezkaritzan aurkezteaz.

Sakana Trenaren Alde plataformatik gaian interesa duten pertsona guztiak informatzera gonbidatu dituzte. Hitzaldietan Nafarroan Abiadura Handiko Trenaren proiektua gaur egun zertan den azalduko dute eta, horrekin batera, herri bakoitzari buruzko informazio zehatza emanen dute.

## Otsaileko informazio hitzaldi sorta

Ondorioak eta STaren proposamena entzuteko.

- **Iturmendi**, otsailak 2, ostirala, 20:00etan, udaletxean.
- **Bakaiku**, Otsailak 3, larunbata, 18:00etan, udaletxean.
- **Lakuntza**, otsailak 6, asteartea, 18:00etan, kultur etxean.
- **Etxarri Aranatz**, otsailak 8, osteguna, 18:00etan, kultur etxean.
- **Arruazu**, otsailak 10, larunbata, 17:00etan, udaletxean.
- **Olatzagutia**, otsailak 15, osteguna, 19:30ean.
- **Uharte Arakil**, otsailak 16, ostirala, 19:00etan, udaletxean.
- **Arbizu**, otsailak 17, larunbata, 18:00etan, Arbi Bidea elkarteetan.



Nafarroako Parlamentuko Kultura Batzordeko ordezkariak eta haiei harrera egin zietenak.

# Parlamentutik Enneco Haritzaren Memoriara

Nafarroako Parlamentuko Kultura Batzordeko kideak Etxarri Aranatzan dagoen zentroan egon ziren bisitan. Bultzatzaileek instituzioari laguntza eskatu zioten, Nafarroako Erresuma zaharraren erreferentzia historikoa izan nahi duen gunea aurrera ateratzeko

## ETXARRI ARANATZ

EH Bildu talde parlamentarioak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeko kideak asteazkenean Etxarri Aranatzan izan ziren bisitan, Enneco, Haritzaren Memoria zentroa ezagutzeko. Aipatu zentroa Nafarroa Bizirik Fundazioak Nafarroaren historia ezagutarazteko sustatutako parke-museo-erakustokia da, interpretazio zentroa eta Aralar eta Urbasa mendilerroen artean natura-ibilbide bat duena.

Etxarrira gerturatu ziren parlamentariak Asun Fernandez de Garaialde Lazkanok azaldu zenez, bisitaren helburua "Enneco, Haritzaren Memoria Zentro Kultural eta Historikoa in situ ezagutzea izan da, interpretazio zentro bat duen parke baten sorrerarako proiektua, ikerketa ekintzak burutzeko asmoa duena, baita historia zabaltzea eta bateragune gisa funtzionatuko duena, Baskonia-Nafarroako Erresumaren memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin".

Beraza Irañetako alkatea, Maria Saez de Albeniz Etxarri Aranatzko zinegotzia, Julián Cenoz, Patxi Arrosagarai eta Koldo Amatria Orreaga Fundazioko kideak, Adur Elizalde eta Xabier Elizalde Enneco Auzolaneko kideak, Aintzane Gartziandia Mugaie aisialdi enpresakoa, Iñaki Erdozia arkitektoa eta Amaia Ijurra, Etxarriko kultur teknikaria zeuden.

## Bisitaren helburua: Enneco in situ ezagutzea

EH Bilduko Asun Fernandez de Garaialde Lazkanok azaldu zenez, bisitaren helburua "Enneco, Haritzaren Memoria Zentro Kultural eta Historikoa in situ ezagutzea izan da, interpretazio zentro bat duen parke baten sorrerarako proiektua, ikerketa ekintzak burutzeko asmoa duena, baita historia zabaltzea eta bateragune gisa funtzionatuko duena, Baskonia-Nafarroako Erresumaren memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin".

Eraikitzen ari diren parkean bisita gidatua egin zuten parlamentariak eta bertan bildutakoek. Enneco interpretazio gunea Etxarri Aranatzko Udalak utzitako eta herriko campingetik hurbil dagoen harizti batean dago eta 60.000 metro karratu hartzen ditu. Parkea bisitatu ondoren, bildutakoek Etxarriko Kultur Etxera jo zuten. Han, Enneco parkeari buruzko bideo proiektua ikusteko aukera izan zuten eta Enneco Auzolaneko kide Adur Elizalde egitasmoaren berri eman zuten.

## Auzolanean sortutakoa

Elizalde azaldu zenez, auzolanean sortutako proiektua da Enneco, Haritzaren Memoria.

## "ENNECO PROIEKTUAK AURRERA EGITEKO INSTITUZIOEN LAGUNTZA BEHARKO GENUKE"

Bultzatzaileek gaineratu zuten, proiektua kinka larrian dago eta finantziario bide berriak bilatzen ari dira aurrera eramateko. Tartean, instituzioei laguntza eskatu zieten. "Instituzioen laguntza beharko genuke proiektuak aurrera egiteko, hasierako izpiritua errespetatuz, helburuak bultzatu, zabaldu eta ezagutarazteko". Nafarroako historia zabaltzea da euren nahia. "Gure sustraiak zabal daitezzen interpretazio zentro bat eraiki nahi dugu eta elkarlanaren fruitua izan dadin nahi dugu. Historiarako leku bat izateaz gain, naturaz gozatzeko leku paregabe baten aukera ematen du, Aralar eta Urbasa mendilerroen artean natura ibilbide batekin. Gutxinaka parkea forma hartzen ari da" nabarmendu zuten.

## Enneco parkea

Enneco, Haritzaren Memoria egitasmoan eraikin nagusi baten inguruan ibilbide zirkular bat aurreikusten du diseinuak, museo paleolitiko bat, euskarari buruz beste bat, mitologia eta ohiturei eskainitako esparru bat, emakumeari buruzko eraikin bat, Erdi Aroko dorre bat eta kastro baskoi bat.

## Udan zabaldu zituen ateak

Parkeak aurreko udan ireki zituen ateak, eta uztaila eta abuztuaren 600 bisitari izan zituen. Aisialdi gunerako aterpe bat dauka, eta bertan jolas eta ekin-tza desberdinak ezartzea pentsatu dute, tirolinak eta abar. Erdi Aroko dorrea altxatuko duen garabia ere ikus daiteke, Angel Mari Garmendia etxarriarrak egindakoa.

Enneco, Haritzaren memoriak Nafarroako Gobernuo gizar-tearen intereseko kalifikazioa lortu du, Nafarroako Kultura Kontseiluaren bidez, eta Mezenasgoaren Lege berriak (MECNA) ezartzen dituen etekin fiskalak ere lortu ditu. Bertara egindako ekarpenek onura fiskal garrantzitsuak ditu: lehenengo 150 eurotan %80aren dedukzioa Errenta Aitorpenean eta %40koa gainontzeko ekarpenetan.

## Lan sesioa maiatzean

Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeak eta Enneco, Haritzaren Memoria parkeko bulkatzaileek lan sesioa izango dute, maiatzean, Nafarroako Parlamentuan.



Euskaraldia ekimeneko logoa.

## Euskaraldia, 11 egun euskaraz: izena ematea zabalik

Ekimenean parte hartu nahi duten herriek apirilaren 8ra arte eman ahal dute izena webean

## SAKANA

*Euskaraldia, 11 egun euskaraz* ekimenean parte hartu nahi duten herrien izen-ematea zabalik dago, apirilaren 8ra arte, [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) webgunean. Parte-hartzea bermatzeko formularioa bete beharko dute. Izena eman baino lehen herriko euskalgintzako eragileak elkarlanean aritzea eskatu dute antolatzaileek, ekimena eraginkorra izateko.

*Euskaraldia, 11 egun euskaraz* ekimena 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3a bitartean egingo da. Euskal hiztunok euskararen erabilera areagotzeko proposatzen den egitasmoa da. Ondoko bi roletako bat hartzea iradokitzen digute: Ahobizi (ulertzen duenari euskaraz egitea eta ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz) edo Belarriprest (Egindazu euskaraz, ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut). Helburua gure harremanetan hizkuntzarekin ditugun inertziak astintzea da, euskara erabiltzeko testuingurua sortzea.

Ekimenaren sustatzaileak euskalgintzaren alorrean lan egiten duten erakunde eta talde guztiak eta Nafarroako Gobernu eta Eusko Jaurlaritzak dira. Partikularren izena ematea irailean zabalduko da.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 2

**ALTSASU Benetan brindisa galdu nahi duzu! Gure pentsioekin eta etorkizunekoarekin nortzuk ari dira porrot egiten! Nafarroako Pentsionistak Martxan.**

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

**ALTSASU ¿Paramos? Sakanako feministok grebara! Emakume asanblada irekia deitu Sakanako mugimendu feministak.**

17:30ean, Gure Etxea eraikinean.

**ALTSASU Top-chef ostiralak.**

17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.**

19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**ZIORDIA Mainamikirri album ilustratua aurkeztuko dute Castillo Suarezek, Jose Mari Morcillok eta Enara Insaustik.**

19:00etan, liburutegian.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.**

20:00etan, plazan.

**ITURMENDI Nafarrorako Tren Publiko eta Soziala proposamenaren aurkezpena eginen du Sustrai Erakuntzak, udalak eta gazte asanbladak antolatuta.**

20:00etan, udaletxean.

**ARBIZU Pintxo-pote berezia: garagardo dastatzea. Gazte Asanbladak antolatuta.**

20:30ean, Argi-Bidea elkartearen.

**ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.**

20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU Molly's game filmaren emanaldia.**

22:00etan, lortia kultur gunean.

**OLATZAGUTIA Tinko eta Katez taldeen kontzertua.**

23:30ean, Maisuenea gaztetxean.

**OLATZAGUTIA Oihan Vegarekin disko festa.**

00:00etan, Barandi tabernan.

## LARUNBATA 3

**ETXARRI ARANATZ Neuro hezkuntza jardunaldi irekia. Zure seme-alabaren garuna ikasteko prest dago? Hizlaria Maria J. Lopez Juez doktorea. Andra Mari Ikastolak antolatuta.**

09:30etik 14:00etara, kultur etxean.

**ALTSASU Altsasu eta Lekunberri arteko 100 km-ko joan-etorria eginen dute Barranka Txirindulari Taldeko errepide atalekoek.**

9:30ean, San Juan plazatik.

**ITURMENDI Ximona gaztetxearen 7. urteurrena.**

10:00etatik aurrera, gaztetxean.

**ALTSASU Euskal Herriko Mus Txapelketako herriko kanporaketa.**

16:00etan, Akelarre tabernan.

**ALTSASU Piztu da piztia, Inauteri Batzordearekin. Txokolate-jana ere.**

17:00ean, Intxostiapunta gazte gunea.

**BAKAIKU Abiadura Handiko Trenari buruzko informazio batzarra. Sakana Trenaren Alde eta Sustrai Erakuntza fundazioa.**

18:00etan, udaletxe goiko gelan.

**ALTSASU Eñaut Elorrietak kontzertua emanen du Nafarroa Oinezek antolatuta. 19:30ean, lortia kultur gunean.**

**OLATZAGUTIA The Trikiteens taldearekin dantzaldia.**

20:00etan, Maisuenea gaztetxean.

## IGANDEA 4

**ALTSASU Urbasara irteera antolatu du Altsasuko Mendigoizaleak.**

08:00etan, egoitzatik.

**ALTSASU Irtazako bordetara 49 km-ko joan-etorria eginen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.**

08:30ean, klubeko bajeatetik.

**ALTSASU Guela, Guela antzezlanaren jokatu du Galitoo antzerki taldeak.**

17:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Tierra de dios filmaren emanaldia.**

17:30ean eta 19:40ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Scape room-a.**

18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**ALTSASU Molly's game filmaren emanaldia.**

19:30ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.**

20:00etan, Foru plazan.

## ASTEARTEA 6

**LAKUNTZA Abiadura Handiko Trenari buruzko informazio batzarra. Sakana Trenaren Alde eta Sustrai Erakuntza fundazioa.**



**ALTSASU Altsasuko inauteriak erakusketa prestatu du Inauteri batzordeak.**

Otsailaren 6tik 18ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

19:00etan, kultur etxean.

## OSTEGUNA 8

**ETXARRI ARANATZ Abiadura Handiko Trena Etxarri Aranatzeko informazio batzarra. Hizlariak: Martin Zelaia (Sustrai Erakuntza), Jon Garziandia (Sakana Trenaren Alde), Alaitz**

**Ibarguren (arkitektoa) eta udal ordezkariak.**

18:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Momotxorroen dantzaren entsegua.**

19:00etan, Intxostiapuntan

**ALTSASU El gran showman filmaren emanaldia.**

19:00ean, lortia kultur gunean.



## IRAGARKI SAILKATUAK

## OHARRAK

**Odol-emaileak.** Altsasu: Otsailaren 27an eta 28an, 17:00-20:30. Marxoaren 1ean, 17:00-20:30; marxoaren 2an, 9:30-13:00.

**Etxarriko irakurle taldea.** Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegiren, Elsa Sheelen (1969 Lur) liburuar buruz hizketatzera elkartuko da udal liburategian marxoaren 8an, ostegunean, 19:00etan.

**Otdiko ermitaren alde.** Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

**GoiEner Iruñean.** Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera.

**Gazteei jarritako isunak ordaintzeko.** Euskal preso eta iheslariarik aldeko abenduaren 30 ekimenean parte hartu zuten gazte sakan-darrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri

dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte haueetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

**3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan** eta jendeak han egin ditzaie ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

**Auzolana Josefina Arregui klinikari.** Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinikari) edo 689

03 51 02 (Pabi) telefonotara hots egin dezatela.

**Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresari Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

**Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu,** urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

OPATUTAKOAK/  
GALDUTAKOAK

## OPATUTAKOAK

**Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audi-fonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bixiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.eus

## ESKELA



**Vicente Zelaia Agirrebengoa**

Bizi garen artean gurekin eramanen zaitugu.

Zure familia

## ESKELA



**Vicente Zelaia Agirrebengoa**

(M<sup>a</sup> Luisa gure kolaboratzailearen aita)

Besarkada bat familiari

Guaixe Fundazioa

## ESKELA




**Ana Alegria Mazkieran**

Langile aparta, jostun bikaina, beti inguruko zaintzaile.

Isil isilik joan zara, baina zure oroimena ez da itzaliko.

Altsasuko, Olartziko eta Ziordiko Osasun Etxeko lankideak

## ESKELA




**Ana Alegria Mazkieran**

Ana, maitea, gure bihotzean zaude.

Lakuntzako lagunak

## ESKELA




**Ana Elisa Alegria Mazkieran**

Gurekin egongo zara beti.

Olartziko zure kintoak

Olazti

## ESKELA



**Pedro Gastesi Garciandia**

"Florentino"

Gogoan zaitugu

Txapel Azpi Elkarte

Irañeta

## JAIOTZAK

- **Danel Lafuente Ruiz de Luzuriaga,** azaroaren 26an Ziordian.
- **Intza Azanza Ruiz de Luzuriaga,** ilbeltzaren 20an Ziordian.
- **Maren Azanza Loban,** ilbeltzaren 21ean Etxarri Aranatzan.
- **Alexander Murillo Golovach,** ilbeltzaren 24an Hiriberrin.
- **Ion Beraza Vilches,** ilbeltzaren 28an Lakuntzan.

## EZKONTZAK

- **Mikel Garziandia Reparaz eta Aiora Arrizabalaga Mardaras,** ilbeltzaren 26an Etxarri Aranatzan.

## HERIOTZAK

- **Esperanza Perez de Heredia Villar,** ilbeltzaren 24an Iturmendin.
- **Vicente Zelaia Agirrebengoa,** ilbeltzaren 29an Altsasun.
- **Ana Alegria Mazkieran,** ilbeltzaren 30ean Olaztin.

## EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 2



Larunbata, 3



Igandea, 4



Astelehena, 5



40 tanatorios  
IRACHE  
aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Iruztun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

948 19 70 70  
@Grupolrache  
Grupolrache  
www.tanatoriosirache.es



Ezkurdiak eta Zabaletak gora egin dute azken jardunaldietan. Ea bihar seigarren puntua lortzen duten. PABLO LASAOSA

## Binakakoa, estu estu: aukerekin daude gureak

**PILOTA** Ezkurdiak eta Zabaletak 5. puntua lortu zuten Irribarriari eta Merinori 22 eta 19 irabazita, partida oso gogorrean. 6 punturekin jarraitzen dute Altunak eta Martijak, Elezkanoren eta Rezustaren kontra 22 eta 12 galdu eta gero

Binakako Txapelketako hasierako ligaxkako 10. jardunaldiak are gehiago estutu du txapelketa. Lidergoa zuten jokoan Altuna III.a-Martijak eta Elezkanorezuzak, baina jokoan zegoen puntua Elezkanok eta Rezustak pilatu zuten eta 8 punturekin, finalerdietan egoteko urratsa eman dute. 6 punturekin jarraitzen dute Altuna III.ak eta Martijak, eta goranzko bidean daude Ezkurdia eta Zabaleta, 6. puntua lortu baitzuten. Oraindik asko dago erabakitzeko.

**Altuna III.ak eta Martijak bigarrena galdu dute jarraian** Urdulizen, Elezkanorezuzaren eta Altuna III.a-Martijaren ar-

teko partida sailkapeneko goialdean dauden bi bikoen arteko lehia izan zen. Dirua paretu atera zen, akaso Altuna III.aren eta Martijaren alde gehiagorekin. Baina partidaren ez zen esperotako parekotasunik izan. Altunak ez zuen beste egunetako inspiraziorik izan eta atzeko koadroetan Julen Martijak nahikoa eta soberan izan zuen Rezustaren erasoari erantzutearekin. Hasieran 6 eta 7 aurreratu ziren Altuna III.a eta Martija, baina Elezkanok eta Rezusta alde ateratzen hasi ziren eta 22 eta 12 irabazi zieten Altuna III.ari eta Martijari. Segidan galtzen duten bigarren partida da hau, baina bigarrenak dira sailkapenean.

### Urrezko puntua lortu zuten Ezkurdiak eta Zabaletak

Larunbatean Ezkurdia-Zabaletak eta Irribarria-Merino II.ak Labriten jokaturako partida askoz ere gogorragoa eta lehiatuagoa izan zen. Bombonera goraino beteta zegoela, Irribarria eta Merino II.a hasi ziren hobeto, eta 4 eta 10 aurreratzea lortu zuten. Pixkanaka gora egin zuten, ordea, Ezkurdiak eta Zabaletak. Etxarrengo atzelariak agintea hartu zuen, Merinori gailendu zitzaion eta 11ra berdintzea lortu zuten sakandarrak. Hori bai, asko kostata. Ezkurdia deseroso ibili zen, eta kosta egin zitzaion arerioen defentsan guneak topatzea eta izugarri go-

gortu zen partida. 17-ra berdindu eta gero, Irribarriaren bi erremateei esker 17 eta 19 aurreratu zituen gipuzkoarra eta errioxarra, baina une horretan konfiantza berreskuratu zuen Ezkurdiak eta bi tanto egin zituen jarraian, 19ra berdinduz. Azken koska horretara sakandarrak freskoago iritsi ziren eta irabazi zuten, 19 eta 22. Puntu bikoitza balio duen puntua lortu zuten, berdinduta geldituz gero, aurrea hartuko bailiekete Irribarriari eta Merinori.

### Datorrena

Binakako hasierako ligaxkako 4 jardunaldiren faltan, ez dago ezer erabakia. Elezkanok II.ak eta Rezustak 8 puntu dituzte, Altuna III.a-Martijak eta Olai-zola II.a-Imazek 6na puntu, Urrutikoetxea-Galarzak eta Ezkurdia-Zabaletak 5na puntu, Laso-Albisuk eta Irribarria-Merino II.ak 4na puntu eta Bengoetxea VI.a eta Larunbe finalerdietara sailkatzeko aukerarik gabe geratu dira, 2 puntu baitituzte.

Asteburuko 11. jardunaldiak ere emango du zeresana. Olai-zola II.a eta Imazen kontra ariko dira Ezkurdia eta Zabaleta larunbatean Labriten. Irabaziz gero, Olai-zola II.aren eta Imazekin puntutara berdinduko lukete Ezkurdia eta Martijak, eta areriko zuzenak izanik, beste urrezko puntu bat lortuko lukete. Baina azeri zaharra da Goizuetakoa. Bestalde, azkeneko jardunaldi okerre buelta eman eta zazpigarren puntua lortzeko aukera dute Altuna III.ak eta Martijak; baina Urruti eta Untoria dituzte aurrean; hauek seigarren puntua lortu nahi dute eta garaipena lortzera aterako dira. Hortaz, beste jardunaldi interesgarri bat dugu aurretik.



Joanes Bakaikoa. ASPE

## Bakaikoak eta Etchegoinek ezin izan zuten bigarrena lortu

**PILOTA** Promesen 2. Mailako 4. jardunaldian Ugaldek eta Erostarbek irabazi zieten (22 eta 10)

Promesen mailako Binakako txapelketan lau jardunaldi jokatu dira eta puntu batekin jarraitzen dute Joanes Bakaikoa etxarriarrak eta Etchegoinek, larunbatean, Labriten, Ugaldek eta Erostarbek 10 tantotan utzi baitzituzten. Agirre eta Iturriaga dira lider (4 puntu). Ugalde-Erostarbek, Etxeberria-Jaunarenak eta Dario-Irustak hiruna puntu dituzte, Peña II.a-Erasunek bi, Bakaikoak eta Etchegoinek bat eta Errandonea-Tolosak eta Gorka-Salaverrik ez dute punturik. Igandean, Larraintzarren, Etxeberria eta Jaunarena izango dituzte aurkari Bakaikoak eta Etchegoinek.



**Amaya**  
Okindegi-gozotegia

Araia (Araba)  
945 314 572

Olazti  
948 468 755

Etxarri-Aranatz  
948 461 660



Lantegia: Teileria Aldapa S/N  
Altsasu  
948 562 205

BM-supermerkatua

Zumalakarregi Plaza  
Altsasu  
T. 948 468 026

Otadiako Kristo  
Deuna Plaza, 19  
Altsasu  
948 562 185

San Juan kalea, 50  
Altsasu  
670 389 017





Olazabal eta Bergera. PILOTARIAREN TXOKOA

## Irurtzun, EHko Kluben Arteko Txapelketako finalera

**PILOTA** Finalerdietan Hernaniri irabazi zion Irurtzunek. Zazpi Iturri edo Buruzgain izango du arerio

Igandean Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa Nazionaleko lehen finalerdia jokatu zen Tolosako Beotibar pilotalekuan. Irurtzun klubak Hernani izan zuen arerio. Finalera sailkatzea zegoen jokoan, eta hiru partidak emozio handikoak izan ziren.

Lau terdiko partidatan, Irurtzun klubeko Alberto Ongayk ez zuen aldeko eguna izan eta Hernaniko Arrietak 1 eta 18 hartu zuen menpean satrustegierra. Horrela, lehen puntua Hernanirendako izan zen. Zorionez, buruz buruko partidatan Irurtzuno Olanok 18 eta 6 irabazi zion Hernaniko Lizeagari eta Irurtzunek berdintzea lortu zuen. Binakako partidak erabaki zuen, ondorioz, zein klub sailkatuko zen final handirako, eta partida lehiatu eta ederrean, Irurtzun klubeko Olazabalek eta Bergerak 22 eta 15 irabazi zieten Ojueli eta Azpitarteri.

### Finala, otsailaren 18an

Beraz, meritu handiz, Irurtzun finalerako sailkatu da. Beste finalerdia otsailaren 4an jokatuko dute Amezketako Zazpi Iturrik eta Ultzamako Buruzgainek, Beotibarren, eta irabazleak Irurtzun du zain otsailaren 18an Beotibarren jokatuko den final handirako.



Antolatzaileak, babesleak eta Sakanako Kopan sarituak izan zirenak, asteleheneko ekitaldian.

# Sakanako Kopan Beunza eta Audikana txapeldunak

**ATLETISMOA** Altsasuko Lasa Kirolak dendak XIV. Sakanako Kopa-Lasa Kirolak Sariako sari ematea hartu zuen astelehenean. 2018an ere Sakanako Kopa jokoan egonen dela ziurtatu zuten antolatzaileek. Saridunek kirol materiala jaso zuten opari

Astelehenean Altsasuko Lasa Kirolak denda korrikalarien bilgune izan zen. Izan ere, 2017ko Sakanako XIV. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariako sari ematea burutu zen. Sakanako Mankomunitateak antolatzen du Sakanako Atletismo Kopa, Dantzaleku Sakana klubaren laguntzarekin eta Lasa Kirolak dendaren babesarekin, gure ibarrean atletismoa sustatzeko.

Bost lasterketek puntuatzen zuten koparako: IV. Ziordiko Herri Krosak (maiatzak 20), Bakaiku-Iturmendiko XIV. Aitzkozar Herri Krosak (ekainak 10), Ergoienako XIV. Birak (irailak 23), Sakanako XVII. Herri Lasterketak (urriak 21) eta Barrikarteren XXXVII. Oroimenezko Oinezko Lasterketak (abendua 8, Altsasu).

Sakanako 10 korrikalari hobereenek puntuatzen zuten, emakumezkoek eta gizonezkoek, eta Kopako saria jasotzeko, gutxienez aipatu 5 probetatik 4 probatan aritu beharra zegoen.

### 2017ko kopak Olaztira

Lasa Kirolak dendako Mari Carmen Lasa eta Elvira Unziti ordezkariak gain, Sakanako Mankomunitateko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitia egon zen sari banaketan, saritutako korrikalariekin batera. Izaskun Beunza eta Raul Audikana olaztiarrak izan dira kopako irabazleak; 80 euro jaso zituzten kirol materialean, Lasa Kirolak dendaren eskutik. Bigarren saria Ginesa Lopez eta Juan Carlos Gomez altsasuarrek eskuratu zuten, 60 euro kirol materialean; eta hirugarrenak, Leire Estarriaga etxarriarrak eta Francisco Javier Gomez altsasuarrek, 40 euro jaso zituzten kirol materialean gastatzeko. Horretaz

**SANTI AGIRREK SARI BEREZIA JASO ZUEN, KOPAKO PROBA GUZTIETAN ARITU IZANAGATIK**

gain, Santi Agirre Galarzak parte-hartzearen sari berezia jaso zuen, Kopako proba guztietan parte hartu izanagatik.

### 2018ko Kopa maitzean hasiko da, Ziordian

Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak ziurtatu zuenez, 2018an ere segida izango du Sakanako Atletismo Kopak-Lasa Kirolak Sariak. Aurreko urtean bezala, bost probek puntuatuko dute: Ziordiko V. Herri Krosak (maiatzak 19), Bakaiku-Iturmendiko XV. Aitzkozar Herri Krosak (maiatzak 26), Ergoienako XV. Birak (irailak 22), Sakanako XVIII. Herri Lasterketak (azaroak 3) eta Barrikarteren XXXVIII. Oroimenezko Oinezko Lasterketak (abendua 8).

Sakanako 10 korrikalari hobereenek puntuatuko dute, emakumezkoek eta gizonezkoek, eta burutzen diren 5 probetatik gutxienez lautan parte hartu beharko dute. Sariak iazko berberak izango dira.



Audikana, aurreko edizioan.

## ATLETISMOA Gure korrikalarien lan txukuna Idiazabalen

Igandean jokatu zen 38. Idiazabal Herri Krosa (10 km). Denboraldia prestatzen hasteko lasterketa polita da Idiazabalgoa, eta makina bat korrikalarik hartzen dute parte. Horren erakusle, 492 korrikalarik lortu zuten proba osatzea eta helmugara heltzea, Oier Ariznabarreta (32:22) eta Izaro Rubio (38:38) buru zirela.

Sakandar dezentek parte hartzen dute Idiazabalen. Aurten hamabostek lortu zuten proba despeditzea eta azkarrena Raul Audikana izan zen, helmugara 16.a helduta (35:53). Emakumezko sakandar bakarrak osatu zuten proba, Ainhoa Markinez olaztiarrak (49:46), sailkapen orokorrean 364. postuan.

## Sakandarrak Idiazabalen

### 38. Idiazabal Herri Krosa

1. Oier Ariznabarreta:	32:22
16. Raul Audikana (Olaz):	35:53
24. Juan Larrea (Alts):	36:38
34. Javi Borrega (Alts):	37:15
55. Felix Benjumea (Alts):	38:25
68. Joseba Iza (Arb):	38:56
69. Juan Luis Maiza (Etx):	38:57
70. Gorka G. Eulate (Alts):	38:59
111. Gaizka D de Garaio (Bak):	40:19
142. Asier Estarriaga (Etx):	41:14
193. Axier Larrión (Alts):	42:54
194. G. Chamorro (Alts):	42:54
196. Jon A. Fdez (Alts):	43:04
277. Kaxi Estarriaga (Etx):	45:55
364. Ainhoa Markinez (Olaz):	49:46
391. I. Zapiriain (Alts):	50:49



Osasuna Magna Xotak Nafarroako 2017ko talde onenaren saria jasoko du otsailaren 26an Baluartean. XOTA

# Osasuna Magna, Nafarroako onena

**ARETO FUTBOLA** Nafarroako Gobernuak 2017ko Kirol Sariak zehaztu ditu eta Osasuna Magnak talde onenaren saria jasoko du otsailaren 26ko Baluarteko ekitaldian. Bestalde, talde berdeak 2018ko sagardotegi nafarren denboraldia mustu zuen

Nafarroako Gobernuak 2017ko Kirol Sariak nortzuk jasoko dituzten erabaki du. Nafarroako Kirol eta Gazteri Institutuak banatzen ditu sariak, nafar kirolari eta entitateen lana, emaitzak eta jarduna saritzeko.

11 sari dira guztira, eta, tartean, Osasuna Magna Xota areto futbol taldeak jasoko du gizonezkoen talde onenaren saria. Imanol Arregi entrenatzaile irurtzundarrak zuzentzen duen taldea 5.a sailkatu zen 2016/2017 denboraldiko lehen mailako ligan eta Errege Kopako txapelketa irabazteko play-offetan finalerdian erori zen Osasuna Magna. Egun, 2017/2018ko lehen mailako liga jokatzeko ari da talde berdea eta sailkapenean laugarrena da; denboraldi bikaina egiten ari dira. Aipatzekoa da ere Osasuna Magnako Daniel Saldise jokalaria irurtzundarrak bi lagunarteko partida jokatu zituela Espainiako selekzioarekin, eta Bratislavako hiruko torneo.

Sariak otsailaren 26an banatuko dira, Baluartean, 19:00etan, ekitaldi instituzionalean.

## Nafarroako txotx denboraldia mustu zuen Osasuna Magnak

Berueteko Behetxonea sagardotegiak mustu zuen Nafarroako sagardotegiaren denboraldi irekiera. Ilbeltzaren 19an izan zen, eta Osasuna Magnako jokalaria izan ziren kupelak mustu eta denboraldiko lehen "txotx" deialdia egin zutenak. Talde berdeko jokalaria nafarrak izan ziren ekitaldian, Javi Eseverri, Roberto Martil, Asier Llamas, Dani Saldise eta Iñigo Iribarren; baita talde berdeko entrenatzaile Imanol Arregi irurtzundarra ere bai.

## OSASUNA MAGNAK ALAN BRASILDARRA FITXATU DU, LIGAKO AZKEN TXANPAN TALDEA INDARTZEKO

## Europako Txapelketatik atsedendia

Lehen mailako areto futbol liga atsedendian dago, Europako areto futbol txapelketa dagoelako jokoan. Espainiako selekzioarekin dabil talde berdeko Rafa Usin jokalaria. Momentu bikainean dago Osasuna Magna. Inter Movistar da lider (53 puntu) eta talde berdea laugarrena da (43 puntu), Barcelona bigarrena eta El Pozo Murcia hirugarrena 2 puntu eskasera dituela. Otsailaren 16an jokatu da ligako 21. jardunaldia eta Osasuna Magnak Cartagena hartuko du Anaitasunan.

## Alan, jokalaria berria

Osasuna Magnak jokalaria berria fitxatu du neguko azokan. Alan brasildarra da, 26 urte ditu eta Campo Mourao Futsal taldeko dator. Denboraldiko azken tartean taldea indartzeko fitxatu dute Alan, hegaleko jokalaria. Brasildarrak esperientzia dauka eta aurki espero dute Iruñean.

## SASKIBALOA CBASKek bigarren postuari eusten dio

Senior mailako gizonezkoen 1. Senior Autonomikoko ligak larunbatean beste partida ikusgarri bat hartu zuen. Eguesibar-ko kiroldegian sailkapenean hirugarrena zen Eguesibar B taldeak sailkapenean bigarrena zen Altsasuko CBASK taldea hartu zuen. Puntutara berdinduta zeuden bi taldeak eta bigarren postua zuten jokoan.

## Bi tantoko alde

Partidan parez pare ibili ziren bi taldeak eta, azken segundo zirrargarrietan, azkenean bi tanto eskasen aldearekin irabazi zion CBASKek etxeko taldeari, 52 eta 54. Horrela, Liceo Monjardinek jarraitzen du lider (23+11), CBASK taldeak bigarren postuari eusten dio (21+1) eta CBSA El Navarrico da hirugarrena (21+8). Eguesibar laugarrena da (20-1). Asteburuan sailkapenean zazpigarrena den Megacalzado Ardoi taldearen kontra jokatu du CBASKek igandean, 12:00etan, Zizurren.

## FUTBOLA Sakanako Futbol Topaketak atzeratu dituzte

Sakanako Futbol Topaketen barruan, igandean, otsailaren 4an, kimuen mailako 9. jardunaldia zen jokatzekoa Lakuntzan. Guzti hiru partida jokatu behar ziren goizeko 10:00etatik aurrera: Etxarri Aranatz Tipi Taparen kontra, Kaixo Lagun Artearen kontra eta Urdiain Sutegiren kontra. Baina Lakuntzan ezinezkoa izango da jokatzeko eta Dantzalekun, Etxarri Aranatz eta Olaztin ezta ere, beste partida batzuk jokoan daudelako. Beraz, jardunaldia atzeratzea erabaki du Sakanako Mankomunitateak. "Aurrerago, Lakuntzan jokatu ahal denetan eta egutegian libre dagoen egunen batean ahaleginduko gara 9. jardunaldia jokatzeko" adierazi dute Mank-etik.

Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu Sakanako Futbol Topaketak, Sakanako futbol taldeen laguntzarekin. Helburua txikienei futbol partidetan aritzeko baliabideak ematea da, baina lehiakortasunik gabe.

## PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Lagun Artea – Mutilbera	1-2
Etxarri Aranatz – Urrozterra	2-1

SAILKAPENA	
1. Lagunak	35
13. Lagun Artea	15
15. Etxarri Aranatz	12

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
17:00	Urrozterra – Lagun Artea <i>Urrotzen</i>
18:00	Doneztebe – Etxarri Aranatz <i>Donezteben</i>

Lehen zatian hobeto ibili ziren lakuntzarrak eta Cruzek Lagun aurreratu zuen, baina bigarren Mutilberak berdintzea eta garaipenaren gola sartzea lortu zuen. Bestalde, Urrozterra aurreratu zen Urrotzen, baina Etxarri partidari buelta ematea lortu zuen, Iñigok sartutako bi golei esker.

## ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Altsasu – Salesianos	2-0

SAILKAPENA	
1. Pamplona B	30
6. Altsasu	23

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
19:00	Gazte Berriak – Altsasu <i>Antsoain</i>

Hasieratik bukaerara dominatu zuen Altsasuk. Pitik eta Gorkak sartu zituzten Altsasuren aldeko golak.

## EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Altsasu – Mullier	1-4

SAILKAPENA	
1. Berriozar	46
14. Altsasu	11

PARTIDUAK	
IGANDEAN	
12:00	Kirol Sport – Altsasu <i>Orkoienen</i>

Mullierren kontra galdu eta gero, igandean sailkapenean laugarrena den Kirol Sport taldearen kontra jokatu du Altsasuk. Beste partida zail bat.

## ELOMENDIKO TXAPELK.

EMAITZAK	
Zaldua – Eneriz	6-1

SAILKAPENA	
1. Unziti	37
4. Zaldua	23

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
Zehaztu gabe	Bidezarra – Zaldua <i>Noain</i>

Aralgilo taldeak bikain jokatu zuen.



OSASUNA

## Osasuna Altsasun

Osasunako Migel Flaño eta Unai Garcia jokalariek asteartean Sakanan izan ziren, Osasunak bertan dituen bi eskola bisitatzeko. Lehenik eta behin Altsasun izan ziren, bertako eskolako ikasleak ezagutzen. Jokalarien gomendioak entzun eta gero, futbolari gazte altsasuarrek sinadura eskatu zieten Osasunako jokalariei eta talde argazkia egin zuten.



UTZITAKOA

## Osasuna Lakuntzan

Altsasuko bisitaren ondoren, Lakuntzako bidea hartu zuen Osasunako delegazioak, Lakuntzako Osasuna futbol eskola ezagutzeko asmoz. Lakuntzako Pertza elkartearen egin zieten ongi etorria, eta, atzera ere, Migel Flaño eta Unai Garcia futbolari lakuntzarren

galderak erantzun behar izan zituzten. Ondoren, euren talde kuttuneko bi jokalariren sinadurak bildu zituzten, kontentuz, Lakuntzako futbolari txikiak. Osasunako futbol eskoletako kideek Sadarrera irteera egiten dute ere, Osasunako partida bat zuzenean ikustera.



Beñat Katarain, podiumean. UTZITAKOA

### MENDI LASTERKETAK

## Beñat Katarainen bigarrena: Herri Ametsa

Urtea primeran hasi du Beñat Katarainek. Aurrekoan Garingo mendi lasterketa irabazi eta gero, igandean Herri Ametsa Krosa Talai mendi lasterketan hartu zuen parte. 234 korrikalarik osatu zuten Uli mendia eta inguruneetan gauzatutako 14,5 km-ko lasterketa eta Beñat Katarain izan zen azkarrena (1:06:22). Hasieratik hartu zuen aurrea Zegaman bizi den lakuntzarrek, eta aurreko urteko marka 26 segundotan hobetzea lortu zuen, lokatza artean ibili zirela kontuan hartuta, oraindik meritu handiagoa. Migel Angel Asurabarrena lakuntzarra 53.a sailkatu zen (1:25:18) eta emakumezkoetan Alizia Olazabal beteranoa gailendu zen (1:26:49).



Sakanako Mendigoizaleak ibiltzeko irteeran. SAKANAKO MENDIGOIZALEAK

# Sakanako Mendigoizaleak Irañetatik Irurtzunera

**MENDIA** Sakanako Mendigoizaleak taldeko bi kidek ibiltzeko irteeraren berri ematen duen idatzi ederra bidali ziguten. Hurrengo irteera otsailaren 18an egingen dute, Hondarribi eta Pasaia arteko ibilbide ederra. Izena ematea zabalik dago

### PA eta AM

Irañetako frontoia. Goizeko zorziak, igandea, giro hezea eta elurtsua, hotza. Sakanako Mendigoizaleak taldearen urtarreko mendi-ibilaldia, hogei bat lagun azkeneko kontuak adosten. Mendigoizaleak ala mendiarekin maitemindutako eroak? Araotz-Oñati egiteko asmoa genuen, baina atera ez zenez, B plana

genuen: Irañetatik Irurtzunera, mendiz, Pello gidari.

Autoak antolatuta, Irañetako Urruntzurre errekararen iturburua izan zen lehengo helburua. Ederra! Urak gainezka. Gero, Maddalenaitzen gibeledu pistana gora, Orian haranetik barna Urbaranerantz. Goiko aldean, elurra eta zuhaitzak pistara erorita, alderik alde askotan.

Zuhaitzak adarren artetik gainditu beharrak lehenengo urratuak egin zizkion kide baten kapa arrosa deigarriari, sanferminetan euro batean erosita-koari. Punturik gorenera helduta, zabalguneko batean, hamarretakoa hartzea eztabaidatu zen. Batzuek 'hementxe baina berdin'. Besteek 'segitu eta Egiarretan baina berdin'. Hori iku-

sita, arduradunetako batek 'denei berdin zaizuenegaz segitu'. Azkenik, arduradunak 'gauzak horrela hementxe hartuko dugu hamarretakoa' Eta bai gustura!

Urbarango tarreak eremu sordina zirudien, erreka txor eta elurretan langartsu, bidea makina bat zuhaitz eroriek mozturik. Hori zigi-zaga gainditu beharra eta urratu gehiago kapa arrosari. Horrela, poliki baina Egiarretaraino. Egiarretan, labareroan, atsedenditxo bat eginda Ehiztarien biderantz. Tarte horretako gonbidatua lokatza izan zen, erreka txor haziak zeharkatu eta gainditu beharra, eta giro langartsuak eutsi egin zion; hala ere, animoak ez ziren falta eta oinetako egokiekin arazorik ez. Batzuek sinistuta, eguneko trabak gaindituta prest ginela 'El konkis' saioan parte hartzeko, edo kapa arrosaren urradurak ikusita, 'Supervivientesen'.

Horrela, ordu bi eta erdiak aldera Irurtzunera heldu ginen, ibilaldi gogorra baina gustura eginda. Badakizue, 'gustuko bidean aldaparik ez'. Batzuek Irurtzunen bazkaltzen gelditu ziren eta 'konpromisoak' zituztenak etxerantz, hurrengo irteerara arte.

**Otsailak 18, Hondarribi-Pasaia** Otsailaren 18an Hondarribitik atera eta Pasaia iristea izango da Sakanako Mendigoizaleak taldearen helburua. Ohiko tokietan eman behar da izena.



Sakanako informazio erabilgarria, azkarra, gertukoa eta euskaraz  
Sakanako euskalduntze prozesuan euskarri garrantzitsua  
Euskararen normalizazioan oinarri bat gehiago  
Sakanako ekonomiaren bultzatzailea (bazkide txartela / komertzioak)  
Euskal Herriko tokiko hedabideen sarean kokatuta



Dora Salazar, eskulturaren eredu eskuetan duela, aurkezpenean. UTZITAKOA

## Salazarren eskultura bat 78ko sanferminak gogoratzeko

Eskultura egiteko diru-bilketa antolatuko dute. Lana zezen-plazaren ondoan jarriko dute garagartzaroan

ALTSASU

"1978ko sanferminetan herritarrek jasandako eraso oroitzeke Dora Salazarren eskultura bat jarriko dugu". Hala jakinarazi du Sanfermines 78 Gogoan! (SF78) herri ekimenak. Urte hartan polizia zezen plazan sartu eta han barruan eta kanpoan kargatu zuen. Ondorioz 12 pertsona balaz zauritu ziren, eta haietako bat, German Rodriguez, hil egin zen. Festak bertan behera gelditu ziren.

Gertakari haien 40. urteurrenean, SF78 herri ekimenak "hura gogoratuko duen eskultura bat egotea eta gertatutakoaren memoria mantenduko duen eskultura bat egotea beharrezko ikusten du". Eskulturak "diskriminaziorik gabeko eraso hura eta funsgabe kolpatutako hiri guztiaren mina" adieraztea nahi dute.

Dora Salazarri eskultura egiteko eskatu dio SF78 herri ekimenak. Hura kokatzeko Iruñeko Udalaren baimena badute, obra egitea falta da bakarrik. Eta, horretarako, SF78k, Internet bidezko diru-bilketa egingen du, crowdfundinga. Otsailean hasiko dira bide horren bidez eskultura egin ahal izateko dirua biltzen. Azaldu dutenez, diru ekarpenak egiten dituzten pertsona eta erakundeen izenak jasoko dira eskulturak bere barruan izanen duen "denboraren kutxan".

### Eskulturaz

Dora Salazarrek azaldu duenez, bi metro luzeko figura bat sor-

tuko du. Forjatutako burdina erabiliko du horretarako eta hura Ermuako Urkobase fundizioan landuko du. Eskultura totem itxurako gorputza da. Soin hori mutilatua dago, ez du ez bururik ez besorik. "Baina ez du mintzen, eta gaia ederki identifikatu dezake. Gogoratzeko espazio bat, eta handinahia izanik, signifikatuen espazio bat sortzea, etorkizunera begira, erasoei stop esanena diena". Eskultore altsasuarrak aurkezpenean esan zuenez, "herriaren beroarekin egindako pieza bat da. Ez da inposatzen, kaletik pasatzean ikusiko duten pertsona askok erabaki dute".

### Egitaraua

SF78 herri ekimenak gertakariaren 40. urteurrenean, sanferminetako eskaileraren modura, hilerok ekitaldiak antolatuta ditu: antzerkia, zinema, hitzaldiak, argazki erakusketak, bertsolaritza edota hip-hop.

Egitarau horren barruan, martxoaren 24an, historia-memoria eta sormen-ekarpenak, zinematik, antzerkitik eta musikatik kafe-tertulia izanen da. Eskarmentua duten eta gaia landu duten hiru hizlari izanen ditu saio horrek: Enrique Villarreal Armendariz, El Drogas, Alberto Aierra zinema zuzendari altsasuarra.

Esan bezala, Altsasuko sortzailearen eskultura garagarrilean jarriko eta mustuko dute Iruñeko zezen-plazaren ondoan.

# Sakandarrak Bardoak ekimena zabaltzera

Bardoak 2018 Nafarroako Bertso Ekimeneko lehen saioan parte hartuko du Sakana Zirt taldeak Ibaridin: hiru eta lau dira zazpi taldearekin batera. Berako Katatu tabernan neurtuko dira gaur, 20:30ean, bertso-merendu formatuan

ETXARRI ARANATZ / ALTSASU

Idoia Granizo Uribarrenak, Eneko Lazkoz Martinezek eta Unai Artieda Estangak osatzen dute Sakana Zirt. Bertsolaritza ibilbide luzea egin duen eta egun Nafarroako txapelduordean den Lazkozekin batera, eskarmentua pilatzen ari diren Granizo eta Artieda ariko dira. Biek ere bigarren parte hartzea dute Bardoak ekimenean. Euren multzoan Berako taldeaz aparte (Patxi Castillo Graziarena, Aitor Elexpuru Egaña eta Julen Zelaieta Iriarte) Barañaingo Patioko banda dago.

Hirukoteak pasa Sakana Zirt taldearekin (Josema Leitza Razkin, Ekain Alegre Gil eta Saats Karasatorre Martinez) entrenamendu serioa egin zuen Etxarri Aranatz den ostiralean eta prestatuta iritsiko dira gaurko saiora; Bardoak 2018 ekimenean aurreikusitako 23etan lehena.

### Egin beharreko lana

Taldekako hasierako agurraren ondoren, honako lana osatu beharko dute aurreneko fasean: binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian; binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian; binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian; bakarka, gaia eta oinak emanda, bi bertso Habanera doinuan; binaka, egoera emanda, minutu bateko bina txanda segidillan doinuan; bakarka, gaia emanda, bi bertso doinu eta neurri librean; bakarka, zortziko txikian, puntu banari erantzun (taldeko hiru kideak); binaka, pertsonaia asmatu, galde erantzunen bidez, gehienez hiru minutuko tartean (talde bereko bi kide); binaka, egoera emanda, launa koplak; puntuko saioa taldekideen artean, ohikoa ez den doinuan sei bertso osatu arte eta egoera emanda eta akaberako agurra. Azken ariketa hori ez beste



Sakana Zirt-eko kideak ostiralean entrenamendua egin zuten.

## HIRU BERTSOLARIAK TALDE LANEAN ARITU BEHARKO DIRA, ARIKETAK DENEN ARTEAN BANATUZ

guztiak puntuagarriak dira epaileendako.

Lehen fasean beste multzo batean ari den talde bateko bi kide eta publikoa izanen dira saioeko talde onena zein den erabakiko dutenek. Beraz, Sakana Zirt-ekoen egiteko bakarra ez da bi saioetan kantatzea bakarrik izanen. Gainontzeko guztien modura epaile lanak egin beharko dituzte eta, gainera, beste multzo bateko saio baterako gaiak prestatu beharko dituzte.

### Bertso-ekimenaz

Bardoak 2018n 16 talde neurtuko dira. Guztiak ere eskualdeetako bertso-eskolen arabera osatu dituzte, bertsolari beterranoak eta hasiberriak nahastuz. Talde bakoitzean hiru bertsolari aparte, gai-jartzailea edo aurkezlea eta ordezkariak osatuta daude. Guztira 113 parte-

hartzaile ditu ekimenak, eta haietatik 74 bertsolariak dira.

Ekimenean helburua da "bertso-eskoletatik abiatuta, bertso-eskolen sarea eta bertsozale-tasuna indartzea. Era horretan, bertsolari eta bertsozaleen harrobia berrituz, bertsolari berriei plazak eskainiz eta bertsolari eskarmentudunekin kantatzeko aukera emanaz". Bertsoaren Nafarroako sarea trinkotzearekin batera, "bertsolaritza gozatzeko aukera berritzailea eskaintzeko asmoa" du Bardoak 2018k.

Nafarroako Bertsozale Elkartetik azaldu dutenez, "kopuruek ongi erakusten dute Nafarroako bertso mugimenduaren osasuna. Are, bertsolaritzaaren transmisioan jarritako arreta eta indarraren fruitu dira. Bestelako gailurren oinarri dira bertso-eskolak eta tokian tokiko plazak".

Eta bertso-eskolekin batera, ezinbestekotzat jo dute elkarteak berak eta Hezkuntza Departamentuak, mankomunitateekin elkarlanean, ikastetxeetan egiten den lana. Bertsolaritza irakaskuntza programan Nafarroa osoko 2.600 ikasle inguruk lantzen dute bertsoa eskola orduetan.

# Elkartasuna adierazten duten testuei saria

Altsasukoak Aske literatur lehiaketako sari banaketa egin zen ostiralean. Idazlan sarituak euren egileen ahotsean entzuteko aukera izan zen. "Zuen testuekin elkartasuna, hitz potoloa, are gehiago gizentzen lagundu duzue" aitortu zieten

## ALTSASU

Gure Etxea eraikineko beheko solairua jendez lepo zegoela Altsasukoak Aske literatur lehiaketako sari banaketa egin zen. Haren helburua zen Altsasuko auzia hasi zenetik bizi izandakoa modu sortzailean ematea.

Euskal Herri guztitik bidalitako 54 idazlan aurkeztu ziren

Altsasukoak aske lehiaketako 12 ataletako batetara: olerkia, narrazio laburra eta mikro ipuina, gazte edo helduen mailan eta gaztelaniaz eta euskaraz. Azken horretan aurkeztu ziren lan gehienak. Bi mailetan lan bana aurkeztu ziren. Antolatzaileek jakinarazi zuten, lan bakarra aurkezteagatik ez zuten

saria ziurtatuta, gutxieneko kalitatea eskatzen zitzaizen eta saritutako lan guztiek izan zuten.

Maila bakoitzean aurreneko biendako sariak izan ziren. Guztiek Altsasuko Gurasoek emandako diploma eta Altsasukoak Aske herri asablada kideek emandako materiala jaso zuten. Baita Arkatz liburu-dendak



Altsasukoak Aske literatur lehiaketako sarituen talde argazkia.

emandako opari-txartela. Aurreko astean aurreratu bezala, bost sari Sakanan gelditu ziren, hiru Altsasun eta bi Etxarri Aranatzen. Saria jaso zuten 13 pertsonetatik 2k ezin izan zuten ekitaldian parte hartu. Gainon-

tzekoek saria hartzearekin batera hura merezi zuten idatzia jendaurrean irakurri zuten, sari banaketa hutsa beharrean literatur ekitaldia bihurtuz ostiralekoa. Hitza Burundar Txistularien doinuekin lagundu zuten.



Iazko Etxepare Sariko irabazleak. ARTXIBOA

## Etxepare Sarirako lanak aurkezteko epea zabalik dago

Nafarroako makina bat Euskara Zerbitzuko haurrentako album ilustratuak sortzeko lehiaketa antolatu dute.

Parte-hartzaileek euskaraz idatzitako jatorrizko eta argitaratutako lanak aurkeztu ditzakete. Bakarka edo idazleak eta ilustratzaileak osatutako taldean parte hartu daiteke, eta nahi beste lan aurkeztu.

Lanen formatuari dagokionez, ezin dira 20 x 21 cm baino txikiagoak izan eta, gutxienez, 15 orrialde bikoitz izan dituzte. Testuei dagokionez, 4.000 karaktere (zuriuneak barne) baino gehiago ezin dituzte izan. Lehiaketara azken bertsio inprimatua aurkeztu beharko da, bukatutako albumean agertuko litzatekeen

bezala, koadernatu gabe nahi bada. Gainera, kopia pdf formatuan eta testua Word formatuan aurkeztu beharko dira.

Lanak plika sistema erabiliz aurkeztu beharko dira. Originalak aurkezteko epea maiztaren 18an despedituko da. Haiek helbide honetara bidali beharko dira: Etxepare Saria. Leitzako Udala-Euskara Zerbitzua. Elbarren 1, 31.880 Leitzua, Nafarroa. Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna garagarriaren 29a da. Saria: 5.000 euro eta Pamielak albuma argitaratzea.



BAZTERRETIK

KATRIN GINEA

## Maitasunez Vincent



Koadro originala



Keyframe-a



Aktorearen argazkia

Batzuetan arte disziplina ezberdinak elkartzen ditugunean "Loving Vincent" animaziozko pelikula zoragarriak bezalakoak sortzen dira.

Pelikula ikusten hasi nintzenetik banekien esperientzia magikoa izango zela. Lehenengo kredituetatik Van Gogh koadro baten aurrean nengoela iruditzen baitzitzaidan. Van Gogh artea zine artearekin nahasturik, itzela!

Pintura mundua asko ez ezagutzen denok ezagutzen ditugu Van Gogh koadro mitikoak, honen espiralak, kolore biziak eta pinzelada lodiak. Nork ez du Vincenten "La noche estrellada" koadroa ezagutzen? Edo girasolen

koadroa, edo bere autorretratoak? Ba "Loving Vincent" pelikula koadro hauen teknikaz baliaturik sortutako filma da.

Horretarako 4 urtez teknika garatzen ibili ondoren, 100 margolariren laguntzarekin eta bi urtetan zehar, 1.000 lienzo ezberdin marraztuz, 65.000 fotogrametako pelikula sortzea lortu zuten. Oleo teknika erabiliz, koadro horietako bakoitzari beste pintzelada batzuk emanez 65.000 irudi estatiko horiei mugimendua ematea lortu zuten.

Dorota Kobiela zuzendariaren hitzetan, pelikula horrela filmatzearen arrazoi nagusia ez da estilo honetan sortzen den lehen filma izatea edo

errekorra egitea, Van Gogh bizitzaren historia kontatzeko bere koadroen bitartez egin beharra zutela uste zutela baizik.

Van Gogh bizitza ez zen erraza izan; desoreka psikiko dezente izan zituen bere bizian, askotan egon zen ospitalean ingresaturik, eta tarte horietan bere zereginak marraztea, irakurtzea eta eskutitzak idaztea izan zen.

Esaten da sortzaile guztiek ero puntu bat izaten dutela, nik ez dakit ero deitu ahal zaien genio hauei, edo sentsibilitate ezberdineko pertsonak ote diren. Dorota zuzendaria, arte ederrak ikasi ondoren eta marrazketa pasio izanda, zine munduan lanean hasi zen. Krisi baten ondoren Van Gogh kartak irakurri eta pelikula hau sortzea bururatu zitzaion. Bi genio "eroren" ideiak elkarrekin.

Gidoi aldetik nahiko sinplea izanda ere, Van Gogh bizitza pixka bat ezagutzea nahi duenarentzat pelikula oso gomendagarria da hau. Eta bisualki esperientzia zoragarria.



Eñaut Elorrieta kantaria Nafarroa Oinezen eskutik izanen da Altsasun. UTZITAKOA

# "Biluztea, esentzia bilatzea eskatzen dit gorputzak"

## EÑAUT ELORRIETA MUSIKARIA

Eñaut Elorrieta kantariak bere ibilbideko kantuak eskainiko ditu Altsasun bihar, 19:30ean, Nafarroa Oinezek antolatutako kultur errondan. Sarrerak agortuta daude

### ALTSASU

Nafarroa Oinezek antolatuta, Eñaut Elorrieta kantaria bere Deserriko kanta (2013, Elkar) diskoa aurkeztera etorriko da Altsasuko Iortia kultur gunera, bihar, 19:30ean. Sarrerak agortuta daude. Emanaldi horrekin itxiko da Iñigo Aritza ikastolak antolatu duen Kultur Erronda.

Deserriko kantez gain, Ken Zazpirako konposatu dituen kantu batzuk, kanta berriren bat eta orain arte sortutako beste batzuk eskainiko ditu Elorrietak. Kantariarekin hitz egiteko aukera izan du.

### Deserriko kanta zure bakarkako lehen lana izan da. Nondik sortu zitzaizun bakarka aritzeko beharra?

Ken Zazpi ez dizkit eta ez zizkidan asetzen neuzkan kezka musikal guztiak. Duela 20 urte hasi ginen Ken Zazpin, orduan mugitzen zaituzten aferak ez dira egun mugitzen zaituzten berdinak. Behar nuen Ken Zazpi bigarren plano batean utzi eta bestelako bideak uztartzea. Zergatik deserria?

Hor aurkitu nuen inspiratzen ninduen gai bat. Beharbada horra bultzatu ninduten hainbat aldagaik: justu garai horretan

Gernikatik Getarira bizitzera etorri nintzen; ez da deserri bat inondik ere baina betiko inguruetik apartatu nintzen; Ken Zazpitik urruntzeak maila musikalean beste espazio batera eramaten ninduen... Eta deserriaren kontzeptuak, orokortasunean, hainbat gai jorrazteko aukera ematen zidan, deserri fisikoa, esaterako, gure herrian hainbat jende bizi izan duena. Deserria, aldi berean ere, barrura begira ere badelako, ez lekuan, zure gorputzetik kanpo, zure musikatik kanpo deskribatzeko ispilu bat. Irakurketa

ezberdinak ematen zizkidan kontzeptu horrek eta hortik tiraka egin nuen diskoa.

### Sarrionaindia, Cano, Benedetti, Aresti... euren olerkiak musikatuz zenituen. Denok berdin sentitzen al gara deserrian?

Hori izan zen deskubritu nuen gauza bat. Deserriaz munduko txoko ezberdinetan idatzitako poemek badituzte puntu amankomunak. Palestinar batek, kurdu batek, Uruguai batek.. matiz ezberdinekin baina era berdintsuan bizi dute deserria. Deserria bakardadea da, eta askoz gehiago, baina esperantza omen dago guztiaren gainetik. Zure kantuetan ere hori sumatzen da?

Bai. Letrak gordinak dira, baina letra tartean idazleek beti egiten zioten halako aipu bat itxaropenari, baita poemarik gordinean ere. Nik musikarekin, melodiarekin, egin nion lekua itxaropenari.

### Zer nolako ikuskizuna eskainiko duzu bihar Altsasun?

Deserriko Kanta presente egongo dira, baina baita orain arteko ibilbidean sortu ditudanak: Ken Zazpirako konposatu ditudan kantu batzuk, kanta berriren bat... Une honetan nondik natorren eta non nagoen era biluzi batean azalduko dut, nire gitarraren laguntza soilarekin. Kantuaren esentzia, bere biluztasunean, eskaintzea, modu hurbilean, hori da egingo dudana. Orain gorputzak beste bide bat eskatzen dit, biluztea, txiki-ira jotzea, txikiaren matizak bilatzea eta su artifizialik gabe esentzia bilatzea.

### Eñaut Elorrietak epe motzean zein asmo ditu?

Ken Zazpi deskantsu bat hartuko du. Proiektua lozorroan utziko dugu, deskantsatzen. Nik eskuartean hainbat proiektu

ditut. Batetik kantuak konposatzen ari naiz. Hemendik urte bat edo urte terdira nire bigarren lana izango dena grabatzeko asmoa daukat. Eta, bitartean, urte bukaerarako bira berezi bat ari naiz prestatzen, formatu berezi batean, orain arte egin ez dudana. Bestetik, aspaldi honetan European eta munduan biran nabil Labek ahizpekin. Baionako bi pianista dira, musika klasikoaren zirkuituan ibiltzen direnak. Errepertorio euskaldun bat prestatu dute eta beraiekin hiru kanta eskaintzen ditut. Musika bizitzeko beste modu batzuk deskubritzen ari naiz, eta oso aberasgarria izaten ari da.

### Bizi da Altsasuko Nafarroa Oinezaren leloa. Zer iradokitzen dizu zuri?

Iruditzen zait bidean jarraitzeko modu bat, modu positibo bat. Azkenean egin daitekeela ahal-egin bat, borroka bat, auzolan bat... beti positiboan. Eta bide horretan gertatzen dela bizitza. Oso lema potentea da, erakaragarria eta positiboa. Gu saiatuko gara gure laguntza eta aporazioa gehitzen Nafarroa Oinezeko proiektu honi. Txikitatik joan izan naiz Nafarroa Oinezera, gurasoak ikastoleto ira-kasleak izan dira eta ni oso sensiblea naiz, bai ikastolen mugimendurekin eta, orokorrean, kultura eta euskararen aldeko borrokekin. Bestalde, besarkada handi bat eskaini nahi diet Altsasuko gazteen gurasei eta senitartekoei.

## "NIRE BIGARREN BAKARKAKO LANA IZANGO DENAREN KANTUAK ARI NAIZ KONPOSATZEN"



LAKUNTZA . OTSAILAK 9

Sorginak tabernan, 20:00etan.

SAKANA ZART - ADDAMS FAMILIA

Joxema Leitza  
Joseba Beltza  
Ekain Alegre  
Saats Karasatorre

Iker Gorosterrazu  
Amaia Elizagoien  
Egoitz Gorosterrazu  
Alazne Untxalo

informazio osoa  
[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

# Euren egunean bakarrik dantzatuko dute, badakite

Zaleak direla, ez irakasleak. Hala diote Txetxok eta Andonik. Maite dute Altsasuko Zortzikoa eta, horregatik, ilbeltzaren 2tik gaur arte 79 kintoei hura, jota eta porrusalda dantzatzen irakatsi diete. Irakasle aritzeko boluntarioak eskatu dituzte.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

## 1 Noiztik dantza irakasle?

**A.** Andoni. Honekin, 10 urte. **Txetxo.** Nire laugarrena da aurtengoa.

## 2 Esker oneko edo esker txarreko lana da?

**T.** Esker onekoa. Entseguko 20 egunetan gazteen bilakaera, hobekuntza ikusten da, eta pozik.

## 3 Nola moldatzen zarete 79 ikasleri dantza erakusteko?

**A.** Pazientzia handiaz. Eta asko oihu eginez. Gazteak orokorrean, aurten batez ere, nahiko zentratuta daude. Badakite asko direla eta estutu beharra dagoela. Denbora galduz gero, 20 egunetan... Altsasuko Zortzikoa ez da dantza zaila. Kasik okerragoak dira jota eta porrusalda. Gaizki edo ongi, dena ikasten dute.

## 4 Dantza talde askok nahi litzukete eurendako hainbeste mutiko?

**T.** Badakizu, hau Santa Ageda da. Bost parranda egun dira, plazan dantza egin behar da eta ikasi beharra dago.

**A.** Ez dago besterik, dantza ikastea. Hobe edo okerrago dantzatuko duzu, baina Santa Agedan



Andoni Beramendi Espinosa eta Txetxo Claver Barroso, entsegu baten aurretik.

dantzatu behar dugu. Gainera, ez dira konturatzen herri honetan protagonista izanen diren bizitzako aldi bakarra dela. Zu zara protagonista Altsasuko Zortzikoa dantzatzen ari zarelako, kintoa zarelako.

**T.** Urduritzen dira. Badakite plazan bakarrik dantzatuko dutela. Hemen taldean dantzatzen dute eta elkarri begiratzen diote.

Badakite bakarrik dantzatuko dutela, eta euren eguna dela.

## 5 Pilota partida askotan baino publiko gehiago izaten da kintoen dantza entseguak ikusten.

**A.** Beti, batez ere ostiraletan. Badira urte batzuk hala dela. Nik Santa Ageda egin nuenean atea itxita entsatzen zen eta inor ez zen sartzen.

## 6 Zer da hobe entseguak ate itxia-ekin edo irekita egitea?

**T.** Ate irekiarekin. Neska-mutiko asko etortzen da. Begira, nahi gabe, jota, porrusalda eta zortzikoa ikasten da. Halakoak ikusten doaz.

**A.** Beldurra kentzen zaie. Hemen urduri, ba, plazan? Han askoz ere jende gehiago dago. Hemen biok laguntzen goaz. Azken egun hauek ondoan goaz, baina ezer esan gabe. Azken finean, plazan bakarrik daudelako. Gure egitekoa da lasaitzen saiatzea eta txistuari errepara diezaiotela, gainerakoa ahaztu dezatela. Denek esaten dute gero: "okerrago izanen zela uste nuen". Batez ere dantzaz gozatzen ikasi behar dute.

**T.** Bakarren bat pausoz nahasten bada gu han laguntzeko gaude.

**A.** Dantzari uzten ez badiote ez da inor konturatzen. Gu, bera, txistulariak eta ongi dakiten lau besterik ez. Konpasa galdu eta gero gelditzea da okerrera. Beti esaten diet: nahasten bazara, segi dantzan, ez da ezer pasatzen; zure erritmorra.

## 7 Azken urtetako festetan kiosko ingurura jendea dantzatzera bueltatu da. Nabari da?

**A.** Eragina du. Urte zail batzuk egon ziren. Gu hona irakastera etortzen gara, baina duintasunez dantza dezaten. Eta goza dezatela, festa horretarako baita.

**T.** Kezkatzen gaituen gauza bat da, esaterako, buruek dantzatzen dutenean kinto guztiak egotea. Baina besteak dantzatzen dutenean ere denak egon daitezela. Ez daitezela hortik joan. 79ak hor egon behar dira, besteek dantzatzen dutenean.

**A.** Guztiok gustatzen zaigu lagunduta dantzatzea. Besteekiko errespetua da.

**T.** Tarteka denak dauden zenbatzen dugu. Izugarri falta badira buruei jakinarazten diegu, falta direnekin hitz egin dezaten.

## 8 Entseguetara etortzen dira?

**T.** Kanpoan ikasten ari direnak eta entrenamenduak dituztenak kenduta, orokorrean, bai. Batzuk entrenamenduetatik, beranduxeago, baina etortzen dira.

**A.** Data zailak dira: azterketak dituzte... Baina, normalean, gehienak etortzen dira egunero.

## 9 Kasu egiten dizuete?

**T.** Ez dago arazorik.

**A.** Guk hasieran esan genien bakarra: kasu egin eta errespetua izan. Gustatzen zaigulako etortzen gara irakastera. Hau guztiz altruista da. Nirea azken urtea da.

**T.** Boluntarioak behar dira, emakumezkoak edo gizonezkoak.

## 10 Dantzaria, egiten da edo jaitzen da?

**A.** Ongi, dotoreziaz eta trebetasunez dantzatzen duen dantzari batek elastikotasuna, erritmoaren zentzua, belarri ona izan behar ditu. Eta ordu asko pasa behar dira. Gero, egiten da. Ona bada, baina entrenatzen ez badu...

## 11 Lehen mutilak ziren bakarrik. Orain neskek ere. Tradizioa berritzen da.

**A.** Tradizioak denborarekin gertatzen dira. Niretako neskek dantzateak Zortzikoa aberastu du. Orokorrean, askoz hobe dantzatzen dute, erritmoaren zentzu hobe dute neskek. Desinhibituagoak dira dantzatzeko. Neskek dantzateak festari on egin dio. **Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)**

## Bazkide sarituak

- Erkuden Mazkiaran Golkoetxea (Altsasu)
- Marta Lopez Urmeneta (Etxarri Aranatz)
- Olga Vazquez Calvo (Etxarri Aranatz)
- Edorta Zubeldia Lazkano (Lakuntza)

## OTSAILEKO SARIAK:

### 1. SARIA:

EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA  
 EUREKA ZIENTZIAREN MUSEOA: 2 SARRERA  
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

### 2., 3. ETA 4. SARIA:

DONOSTIAKO AQUARIUM: SARRERA BANA  
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN



Ekain berri

